

Maiatz.

maria mestoyaur
 elia arcochapeñ
 at bid gorri itxa
 roboroa jon casen
 ave piarres dñyp
 etre mikel dñpak
 mikel dñvert papt
 xoa etxe goin lu
 cien etxe zahar
 retama itegam
 arra manexlan
 at huamari ean
 nemina berri oi
 han jose basarr
 iona india auxt
 ip zamora .

4

Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura.

Literatura, zertarako ? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasabainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.

Literatura guretako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak.

Literatura bizirako.

ΔURK'ibidEa

oihan	2	hauta mina
joseba sarrionaindia	3	haur besoetakoa eta beste ninfula batzu
auxtin zamora	9	lurreko marikak
mikel dupak	10	mertxika arbolak loratzean -añarrosa (II) Teffe aintzaratik janura ibaiaraino kristo oinazetsuaren izenean
mari amestoy	18	barbara edo desesperantzen esperantza
maijan minaberrri	18	nahi duzu olerkia
manex lanathua	19	zaharregi ... ttipiegi
	21	harrientzat ... herrientzat
	22	erretxik hogoi urtekoak
beñat bidegorri	23	ba karkien artetik
pantxoia etxegoin	24	larreroson beilaz
jon casenave	26	haizearen eskuetan
piarres duny-petre	27	neska papo gorria
aurelia arcocha	28	lehengo amerikano bat kaliforniatik
piarres heguitoa	30	di maccio bisionalaria
itxaro borda	31	maiatza heldu denian
	32	ezkargi hiltzailei zuzendu manifestoa
	33	helas txinako itsasoan
	34	hamar urte
	35	historia eta betikotasuna
	37	gaxuxa kakoliren obraz (II)
maite gamarra	39	eskandalo bohemian (sir arthur conan doyle-n itzulpen bat)
lucien etxeharreta	43	urakoa
	44	margarita inter porcos
mikel duvert	47	egun batera larun ondoan leize bat (marraskoz)

HAUTA-MINA

Zer da maitasuna?
 Zurekin egon nahi baina ezin
 Zergatik ezin?
 Zutaz dudan egarria
 Harekin ditudan lokarriak,
 Zer hauta, nor hauta
 Zergatik hautatu behar?
 Bakea edo guda
 Ur geldia edo sua?
 Beldurra, beldurra
 Zureganako maitasunaren beldurra
 Beldurra eta beharra
 Zure ezpainen beharra, gosea.
 Askatasuna
 Zure laztanetan, haren goxotasunean ote dago?
 Askatasunik ez dago
 Aterabiderik ere ez.
 Maite zaitut eta behar nau
 Behar zaitut eta maite nau.
 Zure begi ikatzen gorian erre
 Haren begien ibai garbian ito
 Desagertu, ahantzi, etengabeko hutsunean murgildu,
 Bihotzaren bi zati minberatuek bat egin dezaten.
 Nor jarraiki?
 Hautatu beharra, zertarako?
 Mina, mina, hauta-mina.
 Itsu bihurtu naiz
 Zure abestiak gidatzen nau
 Ibil eta ibil, beti aurrera,
 Zure bila bidegurutzeraino.
 Eta han haren abotsak zurea itzaltzen du.
 Gelditu, bere alderantz urrats bat egin.
 Zure deia oihu bilakatu da.
 Itzuli. Non zaude?
 Lasterka, hegaka zuregana nator
 Hor zaude, hor hurbilean.
 Besoak luzatu, eskuak ideki
 Hunkituko zaitut, ez naiz geldituko.
 Nahimenik ez.
 Indar batek narama, indar hori naiz ni.
 Zure oihua azkarrena da
 Baina haren negarra... EZ!
 Isiltasuna
 Iluna
 Bakarrik
 Bakar bakarrik
 Bakartasun hotza betiko laguntzat
 Hor uzten dizut bihotz erdia
 Beste zatia harek darama
 Nik ez dut bihotzik behar.

HAUR BESOETAKOA ...

ETA BESTE

NINFULA BATZU

"... emazte-haurra ez da niretzat
nahiz den nire izanaren zathi.
Ene jorana zilhegi ez zait..."

Jon Mirande.

I

Zortzi eta hamalau urteren arteko neskatilak, baina ez guziak, amodio gai bilakatu direnak, **ninfula** izendatuko ditut. Politak, argal samarrak, desanparatuak. Erdi biluzik eta nora ezean azal daitezke, sagartxo zurigorri antzo. Kreatura xarmangarri eta aldakorrak, bihotz adinduen gatibatzaile iheskorak.

Sagartxo zurigorriei begira, berriz, adar ferde batzuek daude. Hogeita hamar edo berrogeita hamar urte inguruko gizonen **pater familiae** irriek ezkutatu begirada lizunak. Gizon hauek amodio moeta bi usatzen dituzte. Alde batetik, arruntak omen diren harremanak, adin beretsuko emakumeekin, emazte legalekin batez ere. Beste aldetik, fornikazio moeta arrunt honetaz at, erabat desberdina den ninfulekiko amodioa, esperantzarik gabekoa, gatibatuaren kristalezko eta lumazko amodioa.

Mendebaleko literaturan **Vladimir Nabokov** izan da amodio beregisako hau ederki tratatu eta ezagutarazi duena, baina ez da ez lehena ez azkena izan. Zientifikoek eta medikoek **paidophilia**, **nympholepsia** eta halako izen itsusiak ezarriaz higuinagarrri egin eta debekatu nahi izan arren, joera erotiko honek lekua gorde du, leku libro eta eder bat, mendeetan zehar munduan eta literaturan, lekua tipia ere denagatik. Euskaraz, gure letra garbizale eta hes-tuentzat harrigarria bada ere, euskal obrá ederrenetariko bat gai honetaz da, **Jon Miranderen** "Haur Besoetakoa", gure artera ahate beltzaren antzera sortua. Eta, harrezkero, homosexualitateari eta gisako gaiei buruz ia ezer izkiriatu denez, ninfatxoekiko gizon adinduen erlazio hau da, agian, euskal literaturako heterodoxia sexualik ezagunena.

II

Gaiaren arrasto

Gaiaren arrasto literario zaharren bila, **Vladimir Nabokov** beraren oharrak segituaz, **Dante Alighieri** toskanoa aipa daiteke. 1274 urteko maiatzean bederatzi urte baino ez zituen **Beatrice** neskatoaz maitemindu omen zen, gero Komediako zeruetan gidatatzat hartuko zuena. XIV mendeko poeta onenetariko baten gaia eta alosia ere humea omen zen, **Fran-**

cesco Petrarcaren **Laura**, hamabi urte baino ez bait zituen gizona amodioaren sareetan harrapatzean; neskatoak amore eman ez eta, handik sortu omen zen Errenazimenduko amodio platonikoen poesia. Baina, literaturaz segitu baino lehenago, bizitzan ezaguturikoa aipatu nahi dut, argigarri datekeela-koan, ingurura begiratzea da eta.

Nik hamabiren bat urte nituela, ez nondik ez nora ez zuen bagamundu zahar bat ezagutu genuen, aldi batez Durangoko aukietan finkatu bait zuen bere bidefardeleria eskasa. Adatsa goiz urdindurik, aurpegia errioxa ardoaren koloreko, begiak busti eta dizdiranteak, larru azala beltzarana eta zimurra. Bada, bazter gizaseme harek, bere hatzamar artegak neskato humeen belaunetan, edo hatz finetan, edo masail samurretan iminiatz gozaten zuen. Baina, neskatxoek ihes egiten zioten eta mutikotxoek hurrindik burla. Adineko gizon zintzo eta zuzenek, berriz, eraso egin zuten egunen batean eta, geroztik, ez dut us-te gure herrira itzuli denik.

Urteak geroago, gartzelan, beste ninfatxoazale bat ezagutu dut. Ene lagunak, gutunak eta fotografiak presoarentzat amodioaren zoko bakarrak badira, gutunik ez du bidaltzen ez hartzen baina liburu eta aldizkari guziak erreparasatzen ditu ninfula erretratuen xerka eta, aurkitzen dituenean, begirada gozoz laztantzen ditu. Irribarre egin eta humetxoak, berari bakarrik ezetz, denoi gustatzen zaizkigula erantzun du gai honetaz idatzi eta bera ere aipatuko dudala esan diodanean.

Baina itzul gaitezen literaturaren mundura.

III

XIX. mendean **Charles Lutwidge Dodgson** erreberendoa dago gure gaia ukitzen, **Lewis Carroll** izen-goitiaz eta literaturagatik ezagunagoa. Hiru gauza zaizkit laket berak eginiko gauzetan: lehendabizi obra literarioak, "Alice in Wonderland", "Through the looking-glass" eta "The hunting of the Snark" (gero **André Breton**ek surrealizatzen errebindikatuko zuena); bigarren, asmatu zituen hitz, logika eta matematika jokoak (geroko **Martin Gardner** bidea

erakutsiko ziona); eta, hirugarren fotografiaren lehen urratsen haro haretan egin zituen erretratu ederrak. Eta alderantziz ere imini ditzaket hiru gauzok, zein laketago zaidan ez erabakitzearren.

(Anaia bi eta zortzi arreba omen zituen **Lewis Carrollek**, ezkertiak, motelak, puritanoak eta heterodoxoak guziak. Euskaldunentzat arras ezaguna da anaia gazteena, Edward Spencer Dodgson, euskal liburu zaharren berrargitaratzaile eta euskaltzaleen artean hasarre gehien erein dituenetariko bat. Baina hertsu dezadan parentesia, gaiaren haria ez galtzeko).

Erreberendoak neskatoei kondatzen omen zituen bere istorioak edo, hobeto esateko, neskatoei kondatzeagatik eta haiekin egoteagatik asmatzen omen zituen (Literatura seduzitzeko modu bat baino ez dela esan zuen, behin batean, Mariasunek). **Alize Herrialde Miresgarrian** delako narrazioa 1862 urteko uda arratsalde batetan belatzean eserita hasi zen kondatzen hamar urteko **Alice** bati, **Alice Liddell**, **Christ Church** ikastetxeko dekanoarean alabari, eta urte bereko eguberrietan kaligrafia eder eta marrazkiz hornituriko (marrazki hauen orde, gero, 1865 urtean argitaratzeko, **John Tenniel** enkargatu zen grabatu miresgarri batzu egiten), bada, marrazkiz hornituriko eskuizkribua erregalatu zion haur hari. Tratu hurbila izan zuen, urte batzutan, dekanoarean familiarekin ("dekanoarean etxean iragan dut goiza, bere alabatxoak fotografiatzen" idatzi zuen, adibidez, ekainaren hiru batetan bere egunkarian), baina, amodio aldiak iragankor direnez, **Alicek** hamalau urte konplitu orduko berezi ziren, erreberendoak ezkontzeko proposamena egitean neskatoaren gurasoak hasarretu zirelako, batzuren ustez.

Baina **Lewis Carrollek** beste **Alice** bat ezagutu omen zuen, **Izpiluaren Bestaldean** delako liburua idazteko (oroitu, eskuineko eskuan laranja bat hartuaz izpiluari begira izaniko solasa). Baina ez zitzaizkion **Alice** izenekoak bakarrik laket, **Gertrude Chataway**, **Isa Bowman**, **Enid Stevens**... (Isa Bowman, orduko neskatoak geroago esango zuen: "erreberendoak bersarkatu eta apasionatuki mosukatzen ninduen ipuinak kondatzen zizkidan artean"). Guziak fotografiatzen entseiatzen zen eta, egun, denik eta ninfula bildumarik ederrena da **Lewis Carroll**en argazkiarena.

Bere egunkarian idatzirik utzi zuen: "*Mutiko biluzien irudia ez zaidala laket aitortzen dut; mutikoak laketago zaizkit bezituak. Baina ez dut entelegatzen zergatik estali behar diren neskatoen tankerak miresgarriak". Seguruasko, bere kera miresgarriak". Seguruasko, bere anaia tipiak, **Edwin S. Dodgson** bibliofilo eta euskaltzale heterodoxoak, alderantziz hautatuko zukeen, bideanabar, mutikotxoak laket bait zitzaizkion, gustuak desberdinak direlako, ez duelako estetikak, ez erotikak, maiuskulazko egiaz.*

IV

Miresteraino goretzen zein desprezioraino gutiesten den idazle bat da **Edgar Allan Poe**, baina, aldeko zein aurkako izan, ezin daiteke ukatu epe berri bat ireki zuela literaturan bere influentziak. Influentzia hau, bere obragatik bezainbeste, bere pertsonaltate goibelagatik eman da agian. Ohargarria da, gainera, Pariseko literatura giroetan ukan zuela (**Charles Baudelaire** eta besteri esker) bere sorterrian baino arrakasta askozaz gehiago. Euskarara, **Jon Mirandek** itzuli zituen ederto **Amontillado Upela** ipuina eta **Belea** poema luzea, bostondarrarekiko estimua erakutsiaz.

Gure gaiari dagokionez, bere biografiako datu bat dugu: **Virginia Clem** hamairu urteko neskatxoarekin, bere lehengusinarekin, esposatu zen 1836 urtean. Emazte gaisoa 1847 urtean hilgo zen, oraindik hume, gai literarioa bilakatzeko. "*Emakume eder baten heriotza munduko gairik poetikoena da dudarik gabe*" esan zuen **Edgar Allan Poek**, eta bere poemak irakurtzea da gai hau zenbat aldiz erabili duen ikusteko onena.

Amodio hil bati buruzko poema da baitaere "*Annabel Lee*" delakoa, baina humearora garamatza: "*It was many and many year ago, In a kingdom by the sea...*" (Duela haunitz eta haunitz urte gertatu zen, itsas hegiko erresuma batetan...). **Virginia Clem** zuen gogoan, **E.A. Poek**, "*Annabel Lee*" idazterakoan, humearoko amodioa, humearoko emaztea, humearoko hila, heriotzak mozturiko amodioa sekula itzaltzen ez dena delarik.

V

Ene gustuko idazleetaz segituaz, **Marcel Schwob** aipatu nahi dut laburki. "*Zein sakonki hunkitu ninduen gaztaroan Marcel Schwobekin enkontruak!*", idatzi zuen **Guillaume Apollinairek**, eta haren gauzak irakurri dituen bakoitzak errepika deza keela uste dut, nik behintzat (eta "*Vies Imaginaires*" irakurtzeko **J. J. Bakedanok** erakutsi zidala eta "*La Croisade des Enfants*" itzultzeko ideia **B. Atxagak**

eman zidala akordatzen naiz). Edozein gauzek sensibilitate eta kolorea duela, oroitzapenaren eta zorigaitzaren lirismoa, gertaerak zirkularrak direla, estilo erreze baina konplexu batez erakusten du **Marcel Schwobek** Gure gaiari dagokionez, "Le Livre de Monelle" dut orain gogoan, ninfulatzat bait ditut **Monelle** eta bere ahizpak, sinbolismoaren behelaino dotratuen artean sortuak. Berdin, bere ipuin laburretan, ninfulak dira "Blanche" ipuineko haurra, odoltsua, eta "Gruchette", laban zuri bien artean imini zena, edo "Bargette", Hegorantza joan nahi zuen humea.

VI

Orain arte eginiko aipamenetan, gehien bat, ninfulak idazleen biografiekin erlazionaturik daude eta haien obretan, gure gaia, erdi ezkutuan ageri da, hau da, bere erotismoa haur fantasiaz edo mistizismo sinbolistaz estalirik. Gaia zeharka emana da, lizuntasunik gabe halegia. Baina, zer da lizuntasuna? Lizuntasuna, erotismoaren alorrean, uste orokorrak kondnaturiko zerak estalkirik gabe erakustea da.

Estalkia, halaere, erlatibo da, lizuntasuna hein handi batetan irakurlearen adimenean dagoelako. Hau da, ez dago liburu edo kuadro batetan, irakurtzen edo begiratzen duenaren gogoan baizik. Beraz, diot nik, ene gogoan? Baliteke; eta hala balitz erlatiboak eta arbitrario samarrak lirateke paper izkiriatu guziok ere. Baina, segi dezadan, erlatibotasunak aldean harturik.

Lizuntasuna behar sakon bat da gizarte erlazioetan eta gizabanakoaren gogoan, eta areago dio **Havelock Ellisek**; haurrentzat ipuin miresgarriak bezain beharrezko direla istorio lizunak adinekoentzat.

Eta beharrezkoaz gainera, lizuntasuna amodio ordenatuaren mugak zeharkatzea da, ohituraren azala urratuaz gauza xarmangarriak bilatzea eta, agian, atseginareen territorioak zabaltzea.

Baina lizuntasunaren aurrean, burruka bat dago beti, gizarteak bere usadioen mugak defendatzeko eta transgresioak erasotzeko harresiak altxatzen ditu eta idazle edo pintore lizunak, bere lanak eztituaz gizarte egituretan integratzen ez baditu, galtzailearen partean geratuko da ia beti.

VII

Ninfulek beste izen bat dute **Vladimir Nabokov** errusiar amerikanoak 1955 urtean "Lolita" delako nobela argitaratu zuenetik. "Bederatzi eta hamalau urteren artean, haik baino bi edo hiru aldiz zaharrago diren bidaiari liluratuei beren benetako izakera, ez gizakoa baizik eta ninfikoa (demoniakoa alegia) erakusten dieten dontzeilak sortzen dira; kreatura hautatu hauei ninfula deitzea proposatzen dut" idazten zuen, orduan, ninfulak harrezkero **lolita** deituko zirela jakin gabe. Ez dut hemen esplikatuko zelan ahozkatu **Lo-li-ta**; ikasi nahi duenak irakur dezala liburua. **Vladimir Nabokoven** obrak ninfulei izen berria eman ziela esan dut eta, izenaz gainera, **Dolores Haze** eta **Humbert Humberten** arteko harremanak amorio moeta honen eredu bilakatu ziren.

Baina "Lolita", izan, parodia handi bat da. Iadanik ez dago haur fantasiarik, ez mistizismo sinbolistarik, ez azalpen sentimentalik. Parodia hutsa da eta (beste parodia handi batek, "El Quijote" zaharrak kabailerietako liburuak gainditu zituen bezala) gainditu egiten du gure gaian aurreko guzia, aurreko **Lewis Carroll** eta **Edgar Allan Poe** guziak. Izan ere, parodia, irria gauzak gainditzeko modu on bat da, lain denean.

Vladimir Nabokovek arras ongi ezagutzen zizuten aipatu idazle biok, eta haiekiko erlazio batzuei aipatzea interesgarria dela uste dut, gure gaitik amini bat alden du arren. "Alice in Wonderland" errusiarara berak itzuli zuen; itzulpen bakarra ez, baina hobereana, omen. **Vladimir Nabokovek Lewis Carroll** enetik harturiko beste gauza bat: honek hitz aldaketa jolas bat asmatu zuen, aldi bakoitzean letra bat aldaturik hitz batetik bestera hitzez hitz iragaitean datza (geroago inork **word ladders** izendatu ditu, hitz eskailerak), eta **Vladimir Nabokov** joko honetaz baliatzen da "Pale Fire" delako poema luzean, 819. puntuaren komentarioan, hain zuzen, narradore eroak **hate** (gorroto) hitzetik **love** (maitasun) hitzera hiru aldaketatan iragan daitekeela ematen du, **lass** (neska) lau aldaketatan **male** (mutil) bihurtu daitekeela, eta **live** (bizitza) bost aldaketatan **dead** (heriotza) bihurtu daitekeela erakusten duela. Gainera, bai **Lewis Carroll** bai **Vladimir Nabokov** axedrezale eza-gunak ziren, eta axedrez prolema ederrak asmatu zituzten biok; errusiar zuriak, berriz, axedrezlari monomaniako bati buruz idatzi zuen "The Defense" delako nobela ere.

Edgar Allan Poe, berdin, gogoan izan zuen **Vladimir Nabokovek** bere obretan zehar. Ez dut bazter erlazioei buruzko komentario hauetan luzatu nahi, baina nobela bertako erreferentzia bat azpimarratu nahi nuke soilik: "Lolita" nobelako lehen atal-letan ageri den **Annabel**, humearoan **Corfún** tifusez hil zena, **E.A. Poeren** poemako **Annabel Lee** bera da, heriotzak mozturiko hume amodioa.

Euskal literatura kultuan (ez dakit kulto hau pleonasmo den ala esan beharrezkoa den) **B. Etxeparekoaren** eta **A. Oihenartekoaren** ondoren, amodio erlazioak zein gaitzetsirik egon diren ohartzeko aski adierazgarria da larru jotzeari eman zaion izen bat aipatzea; **haragi kutsadura**. Halan izendatu zuen ariketa **J. P. Duvoisin** kapitainak ("bertzeren emaztearekin ez khutsa", **Bible edo Testament Zahar eta Berria**), **R. M. Azkuek** bere hiztegian jaso zuen esakera eta, besteren artean, **J. Etxaidek** erabili du geroago ("apezak gomendatzen du hiru egunez haragi kutsadurarik ez dadila izan" **Usoa Alostorreko**). Haragi kutsadura, beraz, **pollutione carnis**, haroaren ezagugarri den esakera.

Herri literaturarentzat amodioa ez da hain bazterturik egondu eta goretsi ere egin da; larru jotze hutsa ere humore piska batekin. Baina amodio normala bakarrik, gizarte ohiturek onaturikoa, ez gainerako amodio moetak. Alderantziz, herri literaturan arras despreziatu eta gaitzetsirik egon dira heterodoxiak, amodio moeta anormalak.

Jon Miranderen garaian, oraindik, euskaldunen artean **haragi kutsadura** zen larru jotzea (nahiz eta kastitateak jotzeak baino eritasun gehiago sortzen duela frogaturik zegoen). **Jon Mirandek**, orduan, amodio erlazioen naturaltasuna errebindikatu zuen, baina ez erlazio normalen edo gehiengoaren erlazio moetaen naturaltasuna soilik, baizik eta amodio anormalena ere bai. Estatuarentzat eta Elizarentzat (orduko kristau batek, **Jon Etxaideren** "*Jaungoikoak gizonei eta emakumei erantsi ohi dien elkarrenganako joera, gorputzez bat egiten dutena alegia*" kasto hura baino haruntzago) ilegalak eta kaltegarriak ziren amodio moetak aipatu eta, aipatzez errebindikatu zituen poema ederretan: "*Ez lotsa izan, ene hau, othoi/bekhatsu dei egiten dugun hoi/Nurk daki bekhatsu zer den'e?/Ez zuk, ez nik!... Zerbait dakit hal'e/ zirela eder badakit doi-doi*".

"Jei-gai" poeman ihardesten du horrela bekatuaren beldurrari. Irakurgarriak dira beste poema asko ere komentatzen ari garen transgresioaz: "*Neskatxak*", "*Pigalle*", "*Larunbat arrats*", "*Oianone*", "*Eskuari*", "*Larrazken gau batez*", "*Amsterdameko orhoitzapen bat*"...

Euskaraz, ninfulekiko amodioa **Jon Mirandek** ren poematan azaldu zen lehendabizikoz. 1956 urtean **Euzko Gogo**a aldizkarian argitaratu "*Larrazken gau batez*" poeman hain zuzen. "*Magdalenae dilectissimae meae*" dago dedikaturik. "*Poema erotiko-metaphysikoa duzu, ulergaitz samarra. Azken oportetan Sohütan, neskato gazte batekin (15 urte ditu) ukhan ditudan har-emanak ditu oinharritzat, eta arimari eta bizitzari buruz ditudan iritziak bide naber agertzen ditut, hitz erdizka*", idatzi zion poemaren berri emanaz **Txomin Peilleni** egileak berak, 1956-X-17 dataturiko gutunean.

(Parentesi labur bat. Hamabost urte aipatzen dira, gure paperotako ninfatxoak zortzi eta hamalau artekoak diren artean. Batzuek pentsatzen dute anbiguitate bat agertzen denean zenbakiek erabaki behar dutela. Nik erabaki beharrik ez dagoela uste dut eta, gainera, literatura arazoetan zenbakia denik eta gauzarik anbiguoena dela).

1959 urtean, **Egan** aldizkarian "Amsterdameko oroitzapen bat" delako poema bat argitaratu zen, zeinean nehurtitzak nederlandar hiriko karrketan barrena paseatzen diren, **Bessie** loretxoa oroituaz, **maitharzun ez-ohituen bila**: "*Utzirik gibel eme berota/ gizon mozkorren multzoak/ nindabilano parke-tan, hurran,/ ene zentzuak oi! ez ziraden/kalvindar eta zintzoak...*"

1958 eta 1959 urtetan idatzi zuen **Jon Mirandek** bere "*Haur Besoetakoa*", ipuin berria, euskal literaturako narrazio ederrenetarikoa bat. "*Maitasun kondaira bat, 30 urteko gizon baten eta 11 urteko neska baten elkar maitatzea kondatzen duena, euskerazko Lolita bat (naiz ez dudana zoritxarrez V. Nabokoven lanegiña irakurri aal izan)*" „zioen **Jon Mirandek** 1959-11-1 dataz, bere idazlana amaituxe zuela, **Txomin Peilleni** bidaliriko gutunean.

Txomin Peillenek argi adierazi du, gero, **Jon Mirandek** berak esanikoa konfirmatuaz, ez zela **Vladimir Nabokovena** "*Haur Besoetakoa*" obraren iturburua (hori diotenek "*ez dakite pedofilia mundua bezain zahar dela*", Tx. P.) eta, aldiz, **Jon Mirandek** neskatxoaren xarma bere bizitzan bertan ezagutua eta dastatua zuela eta bere obra arras pertsonala zela. "*Berak kondatu zidan bezala* —idatzi du T. Peillenek— *Haur Besoetakoan gertatu trageria behin ezagutu zuen frantses lagun bati agitu zitzaion; gainera, bere gogoan zituen lehia, nahikundeak ere azaltzen dira, pedofiliari eta biziari buruzko aitorretan*". Bestalde, **Jon Mirandek** aipaturiko beste autore batekin lotu nahi bada, ene ustez, ez da **Vladimir Nabokov** baizik eta **Edgar Allan Poe** erreferentziatzen hartu behar litzatekeena, zentsibilitate eta grina hurbiltasunagatik.

Bestalde, "*Haur Besoetakoa*" 1959 urtean amaitu bazen ere, ez zen 1970 arte argitaratuko. Euskal aldizkari eta editorialek (**L. Mitxelena**, **A. Ibiñagabeitia** eta beste saiatu ziren arren) ezin bide zuten argitaratu, idazleak alde zurretik igarri bezala, ("*zati zenbait aski erotiko baitira, naiz funtsez oro garbi eta sentimentala den*"). **Jon Mirandek**, bere hitzetan, aserik zegoen euskal buru zintzo eta zuzenen

konformismoaz eta gudu egin nahi zion, ordura arte politikaz bezala harrezkero literaturaz. Baina gudua gudian batu orduko galdurik zuen, bidenabar, eta 1959-11-24 datako gutunean Txomin Peilleni aitortzen zion: *"Ikusten badut izpiritu aske batek ezin zabal ditzakela bere ideiak moralari edo antzeari buruz euskaldunen artean, erdera batean idatziko dut hemendik aurrera"*.

1970 urterako euskaraz idaztea utzita zuen, liburuia Lur editorialean argitaratu zenean, eta laster utziko zuen bizitzea ere. Azal ostean, aurkezpen gisako lerro batzu ageri dira, Gabriel Arestik, beste deskonforme batek idatziak. Inork "Uhin Berri" izendatu belaunaldiak Jon Miranderi buruz izan duen eritzia erresumitzen dutela uste dut, esaldi bik batez ere: alde batetik *"ez baitago gure ideologiatik gauza hurrunagorik Miranderena baino"* eta, beste aldetik, *"gure literaturari egin dion mesedea ez dugu behar bezala inoiz naikoa laudatuko"*.

XI

Vodka edan ondoren, martxoko gau batetan, gizon bat seigarreneko doa bere alaba besoetakoa lo dagoeneko gelara, lo dagoela ustez, honen gorputz biguna kareziaztera...

Amodio indartsu bat ernetzen da gizonaren eta bere haurraren artean, laztan artean, neskamearen mesfidantzaren aurrean, biluztasunaren lotsaz eta elkar maitatzearen pozez, bizitza berri batetara sortu berria denaren zalantza. Gizonak, haur gorputz mendre eta andregai gorputz betearen artean hautatu behar duenean, haur besoetakoa hautatzen du, gizarte eritzi zuzenen aurka, moralzaleek eraso-ko dituztela jakin arren.

Orduan, alditxo batez, amodioa paradisu tipi bat da bion artean, zelosia laburren batekin, inguruarekiko erresistentzia eszenekin, paradisu galkor bat, zeren paradisu guziak galkorrak bait dira. Senitarteko bat da gizarteak eman dien sententziaren ekarlea, bereiztea, eta orduan amorante biek erabakitzen dute ezetz ez dutela amore emango eta, desparadisuan geratu ordez, sartaldeko balizko paradisurantz abiatzea...

Udako egun eder batetan itsas hegira doaz, udazalez beteriko ondartzak saihestuz, hare zuri eta mehako leku batetara, zeinean karioak soilik diren lekuko. Han, sinbolo den urradura bat, eta itsaso zaballean aurrera sartzen dira. Gazteen Lurreruntz baina, gizonak hil beharrik ez dela deliberatzen duenerako berandu da, haurra uhainek darabilte.

Gizona bizirik ateratzen dute, eta azalpenak eman behar dizkio poliziari, hiritar onari dagokionez, eta txarrari ere dagokionez. Pintore bati, haur besoetakoa eta biek zuten adiskide bakarrari beuren istorioa kondatzen dio eta, gero, sobera pentsatu beharrik gabe, itsasoaren zabelera botatzen du bere burua, uhainen batek haurraren gainean eramango ahal duelakoan.

Bitartean, pintorea, istorio hau kondatu dezakeen bakarra, ostatu batetara sartzen da, gizeliek beste zereginetan diharduten artean, alkoholean itozteko eta bakardadean negar egiteko.

XII

Istoria, guti gora behera, laburtzeaz gainera hiru puntu aipatu nahi ditut bereziki. Luzaz mintza daiteke haur besoetakoa darion erotismoaz, lizun-keriaz ere nahi bada, edota gizarteari eta gizaseme arruntei egiten zaien salaketaz, baina bestelakoak dira ene hiru puntuok.

Bat. Neskamea eta andregaia uxatzeko eta bere burua ausarta egiteko hartzen duen vodka gardena eta mozkorren mundu zoroa, nobela guzian zehar, frekuentzia eta pisu handiz azaltzen dira: *"Ai! vodkak krea ahal baleza berekiko mundu bat, zoroa, burzoratua, baina Isabelarik, neskamerik, ezagunik, gezurrezko eginbiderik behintzat aurkezteko ez liokena..."* Alkoholak gizartetik baztertzeari kontrapuntua egiten eta amodioari osotasuna ematen diola dirudi nobela honetan.

Bi. Mitologia zeltikotik harturiko ideiak, izarteari eta heriotzari buruz, irudien naturalismo poetikoa eta, batez ere, Gazteen Lurra delakoaren ideia ("Tir na n-Og" eta beste izen batzu ere dituen) aipatu nahi ditut. "Gizonak, Theresari begira zagokiolarik, bere herri-minaren jaioterri hura zekusan barruko begiekin, eta bere amets ezin esanezkoari hegoak aske uzten zizkion Sartaldeko uharte dohatsu haietaraino eraman zezan, Gazteen Lur ezkutatu hartaraino. Sinbolo hitzak, berriz, zenbat aldiz azaltzen delarik nobelako irudi askoren esanahia zabalzera bultzatzen du, esan nahi dut, mitoarenak baino erreferentzia zabalagoak hartu behar direla ideia hoik irakurtzean.

Hiru. Ninfula izatea iragankor dela eta, *"et les fruits passeront la promesse des fleurs"* aitutzen du Jon Mirandek, hizpalau urte barru Theresa ere ondikotz Isabelaren antzerako emakume bihurtuko delakoan: *"lore berri bat izateko ordez, udako frutu lirina bat izanen zen maitaleen hortz erruki-gabeakoak esk ingo ziotena eta, laster udazkenak zimel-eraziko zuena..."*

Jarriancindia
maiatz. 7

XIII

Txomin Peillen, Jon Miranderi buruz ihardutean hainbeste aldiz aipatu behar dena, arestian bezala, berriro aipatu nahi dut laburki, ninfatxo baten istorioaren egile delako: "Iasminaren minak" ipuina **Aldjezairian** 1959-IX-29 an datatzen dena. "Eri-zaintsaren senarra oso ona da nerekin, amak oso gutitan eman dizkidan perekuak, halakuak, baita begi, matrailetan musuak ematen dizkit... baina ez dakit zergatik ez duen emaztearen aurrean bere maitsun hori erakutsi nahi", dio Iasmina gaiso eta inozenteak bere mintzaldian, emazte arruntaren zelosiak karrika hautseztatuetara jaurtitzen duen orduko.

XIV

XX. mendea zinemaren mendea delarik —ez ala?— eta gure egunotan literatura eta zinema hain hertsiki loturik ageri direnez, zazpigarren arteruntz ere begirada bat eman dakiok. **Vladimir Nabokoven** nobela, iskanbila artean sortutako hura, 1961 urterako **Stanley Kubrickek** moldatu zuen zinemako), izen bereko filme iskanbilatsu batez: **Sue Lyon** zen **Lolita**. Ninfulekiko beste filme bat "Taxi Driver" da, zeinean hamairu urteko **Jodie Foster** batek xarmatzen (edo erotzen) bait du gerlatik itzuliriko **Robert de Niro**, geroago zinematik lekora **R. Reagan** presidentearen hiltzaile gai bat ere erotuko omen zuen bezala. "Pretty Baby" filmean, berriz, mende hasierako **New Orleans** eder batetan, burdeleko bizimodua deskribatzen du **Louis Malle** zuzendariak, **Brooke Shieldsek** interpretatu humearekiko fotografo baten amodio berezi eta labur baten inguruan.

Azken filme honetako fotografoak, eta aipatu filme guzian fotografia onak, **Lewis Carroll** ekarri dit berriro gogora. Haren erretratuen naturalismoa eta artesau zahaztasuna ez da egun usatzen, lehen tradizio hura abangoardien eta manierismoen faboretan utzi bait da. Baina ninfulak erretratatzeko, oraindik, hor ari dira **David Hamilton** ospetsua, **Jacques Bourboulon** edo **Irina Ionesco**, izen guti aipatzearren. **David Hamilton** da ezagunena eta bereziena, bere lurrin doratuez (**the hamilton touch**, objetiboa hatsaz lainoztatzea da, fotografian nahiz zineman) zetazko oihalak laztantzen dituzten ninfak eta ninfatxoak erretratatu ditu mila bider (bere fotografia liburu birentzako testoen egilea **Alain Robbe-Grillet** da: **Réves de jeunes filles** eta **Les demoiselles d'Hamilton** estilo manierista batez, adoleszenteentzako kistch geldi baten mugatan).

XV

Zortzi urtetarik hamalau urtetara artean dira ninfulak sagartxo zurigorriak. Geroztik, heriotzak betirako ninfula bilakatu ez baditu, pertsona nagusi bihurtzen bide dira, batere xarmarik gabeko ziudana zintzo eta zuzenak halegia. Ai, Lolita ohiak! **Dolores Haze**, behialako kreatura xarmangarriak, 1935ean sortu eta, 48 urte dituke orain; **Sue Lyon** berak ere, 1946an sorturik, 37 urte. Iadanik ez dira ninfulak, ez eta antzik ere. "Ez bitez hazi!" k ninfulak, ez eta antzik ere. "Ez bitez hazi!" kexatzen zen **Humbert Humbert**, baina alferrik. Bizitza ezbeharrez osotzen da, eta laburrak dira zorionak; neuk diotsuet. Hamabost urtekin galtzen da ninfatxoaren xarma eta, orduan, alosia zirenak beste zerbait arunt bilakatzen dira, gure gizarte eskergabe honetan beren ofizioa hartuaz. Esate baterako, uni-bertsitari arduratuak, almazen handi batzutan enpleguatuak, mutil kirolzale batekin ezkondu eta etxekandere on, emegaldu garestiak, baina geroago eta merkeagoak, bulego dotoreko idazkariak edo, ogibide hau galdurik ez belego, inude zabalak. Eta enplegu hauetan, gizarteko beren lekuan eta uste orokorraren azpian amaitzen da lolitan istorio oro.

Theresena, aldiz, ez da horrela amaitzen, zeren Jon Mirandek, itsasoan zurbil eta betirako utzia, bere haur besoetakoa betirako ninfula bihurtu bait zuen. Theresaren oroikarria amodio garbi eta sentimentalaren zokoan geratsen da, gure baitan. Eta noizean behin, gure bakardade ametsetara azaltzen da, Theresa, "amodio garbi eta sentimental" zer den galdetzera. Nork daki! Nork daki, halaber, orain-txe bertan ez ote dagoen Sartaldeko urez handikaldean, lore eta kristal, Gazteen Lurretik guri so, betilun ikusten gaituela eta, urrezko eta elurrezko printzesa, irri karkailez.

LURREKO MARIKAK

Bipien otruntzak,
lurreko marikak,
hezurrekin xutik, larru ta hileak,
lau haizeentzat zer pasaia lekuak!

Bihotzen barneak,
hutsez mugatuak,
elgar atxematen ez duten bidetan
bezala, bakarka, badaude landetan.

Keeten artean,
morroitasunean,
mirailen argiez, soa zauritua,
ez dakite zer den pasioen sua.

Xirulan, mirulan,
ezpainen puntetan,
xoriak bezala, hitzak, ttiu ttiuetan,
handik ez hemendik: zoazt'ezin erran!

Altxorraren bilan,
muinak daldaretan,
ez dute ikusten aintzin, aintzinean,
uztaren urrea, ogi bihietan.

Uste gabetarik,
zoko batetatik,
sortuko zaiote sasi bat ixilik,
joanen baitira "ad patres" itorik!

Hauts ate ta gate!
Xu! aira zaitezte!
zango makiletarik ateraturik,
zeruko arraioez berriz pizturik,
Hauts ate ta gate!
Xu! aira zaitezte!

MÉRTXIKA ARBOLAK LORATZETAN

Amatto,
arima higialdi batez,
eskaini ninduzun,
nigar xorta bat.
Harritu nintzen ikustearekin:
neure burua naukala,
osorik eta biluzirik,
nigar xorta horren barnean.

Uraren firfirekin,
argiaren miliar ximixtekin,
zure matela
hildokatu ondoan,
ixuri zen
neure esku ahurrera,
erle batek,
desestekatzen duen
erremulia osto urdin bat bezala.

Geroztik,
badakit,
amatto,
mertxika arbolak loratzetan,
amodioz edo bihotzminez,
begiak bustitzen zauzkitalarik,
zonbat,
"ni, haur" naizen
"zu, haurrez" iduria.

*N.B.: "ni, haur, zu, haurrez" idaztean, pen-
tsatu dut, nihaur, zuhaur, guhaur... hitzak di-
rela, bizi guziko, gure haur denborako itxu-
rak, igortzen dauzkuten miraila batzu.*

dupak

AÑARROSA II

michel

*“SEÑHOR ELIXONDO, NAHI BADUZU,
HEMENDIK HURBIL DAGOEN AINTZIRA
BATETARAINO JOAN BAGINTEZ...”*

JOSEK BERRIZ LAN NEKE ETA APALENA BE-
REZIA IZANEN ZUEN: LABAKITZE EZIN BURU-
RATUAN MUREKIN BATEAN, ESKUAK ODOL-
TSU BIHURTUKO ZITZAIZKION.

*“BAZTERRETAN SOLDADOAK IHIZIN,
TAPUYAK ARRAINTZAN; EGUN OROZ
PRAIJOSEAMESLARIZEGOEN, OTOITZE-
TAN AGIAN; PRAIMATHIAS HAN HEMEN-
KA IBILKI, OIHANETIK IBaira ETA IBAI-
TIK ELIZARA...”*

TEFFE AINTZIRATIK JAPURA IBAIRAINO

Arrabek ur beltza jo eta jo. Palma hegaztegia-
ren gainean etzanik, zainak oin hutsez erabiltzen
zuen lemako itsas-kanazko zurruma. Arraukarien he-
temeteak neurkatzeko, betiereko xixtua egiten zuen,
Ziberoko khantore zombait orroitarazten zidana...

Esku bat nire besogainean ezarri zen. Irriñoa
ezpainetan, Prai Josek ura hatz trebesaz erakusten
zidan. Lehenik egon nintzen zer arrain bitxi, zer ur
gaineko puska erakuts ote ziezazkidakeen. Orduan,
ohartu nintzen ura fiabartua zela:

“Laister Amazona” erran zidan fraideak. Izan
ere, untziazen kulunka nagia makurtua zen: sagailo
zalu batek uste gabetarik jauzi-eginarazten zigun.
Urrinak hezeago, lohitsuago bilakatzen ziren.

Bat-batean, ur hori laisterrean, baita haizean
ere, izan ginen. Untziak aintzin-aldeaz agur egin
zuen, abreki leriatu zen eta, kasik geldirik, eskuine-
tara itzultzen hasi zen. Bideari atxikitzeke, lemazai-
nak zango eskuinean finkatu zen. Beste untziazen ere
burukatzen ari ziren, zeharka, karamarreen gisa.
Hala-hala hiru egunez gudukatu beharko genuen, Ja-
puraraino azkenean heltzeko.

Buruko untziazen, galera aintzindariak, hiru le-
gezko buruzagiak erematen zituen: Prai Mathias, bra-
sildar kaporala eta... Guiscart, galderik gabe han sar-
tu baitzuen bere burua! Gainerateko soldadoek ber-
ren armekin batera kargamendua osatzen zuten.

Bigarrena Joâok kudeatzen zuen, nup, jan-eda-
tekoekin batean, bai Rufina, bai Añarroza, bai eta
Indiano pare biak ere pilatzen baitziren.

Azken untziazen ez ginen hiru baizik, arrauka-
riez gainera, bainan arma, tresna, kotoin-puska, ezin-
kondatuzko truk-gaien meta alimaleari begiratzen
genion.

Manolo, ahoa zabal, matelak sabel, ni bezain
beroak jo-ta, atorra kendua zuela, kitarra burrunba-
dunari errabiatuki lotzen zitzaion.

Bat-batean, Jose mintzatzen hasi zitzaidan:

*“Egiaz, Jean, fededun kargua ahanztua diate
Xuriek. Populu zaharrok funditu eta gaixtatu
ditiare. Gatilutara bat tafia truk, Indiano ba-
tzu herrestakari ikusten ditudanean, edo ja-
bearen zorokeria azpitik eskarniatzen dutela,
edo xingletan nigarrez, min egiten zaidak,
Jean, herstura lotzen ere... Holakorik ez zuen
Jesusek nahi. Kabal gezurti beldurtiok ez”.*

Kitarra ixildu zen.

*“Zertan dituk populu ohi libro zaharrak? Orain
dela ehun urte, hogeitamar herri bizi zen Japu-
rako bazterrean kokaturik. Sei oraindik dia-
gok! Sei leinu urrikagarri, lehertu, zeinetatik
talde bakoitza gehienetik ere ehun batzu doha-
kabek osatzen baitute! Ez, Jauna! Ezin daite-
ke, Zure Gurutze Sainduaren agertzeak izial-
dura eta heriotzea ezinbestela ekartzea!”.*

Niri so egin zidan, eta:

"Barkatu, Jean. Geroaz beldur nauk. Perutar Jesuistak ehun aldiz Amazonan beheiti joan dituk, gure herriak bahitzeko; baita Brasilgo Karmeldarrak, esklaborik gabe izanik, gora Ucayali ibairaino. Haur-emazte lapurketok betiko gelditu omen dituk. Bainan Mesaiak Iparraldera bildu dituk, Japura-Ahuati juntatik hiru egunetara. Han herri hetsi basu batzu osatzen dizkiate, beti kasu eman, beti burrukatze-ko ala oihanera alde egiteko prest egonik..."

Hitzaldiak nire baitan oihartzun ahul bainan xixta-
kor bat sortarazten zuen.

*"Miranhek aspaldidanik ibaitik alde egin diate; zuhaitzetan bizi dituk; ihizirik ez fruiturik gehiago ez daukatenean, kaskilla batzu jaten dizkiate. Lehen, etxolei sua ematen zitzairen haurren bahitzeko. Orain berriz, seme-alaben sal-
tzea onartzen diate.*

Murak ere bai, Jean! Rio Madeiraraino Amazona osoan kokatuak zirenak, Ibai Haundiko lasterkariak zirenak... garaitzeko. bost gudaldi beharra izan zen.

Ehun batzu Xurienpekotu dituk. Besteak igan dituk lakuetaraino. Ah! Jainkoari urrikari banakio, elezuridun joko ilun horren kanpo atxikiko nau. Bizia, zoriona eta egiazko fedea elgarrekin zabaltzeko ahala emango ziguk.

Seigarren ibilegunaren goizean ikusi genuen lehenbiziko Mura. Untzizainak botatako oihu ito batek buruak altxatarazi zizkigun. Hementxe zegoen Indianoa, hegian geldirik, guregandik hiru urratsetatik. Seska luzea zeukan, guri buruz zuzendua. Arrabariak higitu gabe, oraindanik ixil-ixilik zeuden. Begien aurrean dilindan ile beltz litsetatik behera, gorputz guttia zeukan tindadurazko gorri-gorria; gerriko soka batek hamaika hegatz bost koloretako atxikitzen zuen, zeinek sexua gorde egiten baitzioten. Sudurretik eskuin-ezker, baita azpiko ezpainpean ere, mokoa gora, hiru makurtutako elorri beltz zeukan.

Hiru untiak elgarretatik hurbilduak ziren. Pamacariaren gainetik ikusten nituen Guiscart, Mathias eta Joâoren aurpegiak, baita fusilak ere. Bihotza lauroinka ari zitzaidala bat-batean gorrotaturik ohartu nintzen.

Hegira berriz so egin eta, han ez zen gehiago Indianorik. Eta Prai Josek:

Jadanik fusilak, Jean, jadanik fusilak, ihiztari bakar huts batengatik".

Nik berriz:

"Odola beroxegi..."

"Horregatixe beldur nauk, horregatixe".

Handik aintzina, hiru egariteak ibili ziren emekiago eta kasik brankaz-branka. Ixil-ixilik, arrabariak inarroska arrauka ari zirela, lemazainak ausartziarik gabe erasiak botatzen zizkien. Manolok fusilak ateratu-eta, frogatzen zituen eta sakelak kartuxetaz sakatzen. Jarraiki nintzaion Joseri so egin gabe.

Tapuyek ez gintuzten bixtatik galtzen, gure indar-ahalmenez jabetzeko bezala.

Bat-batean, Manolok esku-muturra zapatu zidan.

"Han, palmondoaren gain-gainean, laister..."

Aurpegi gorri bat ikusi nuen, berehala galdua. Huakari bat zen beharbada, aurpegi gorridun ximino... Bainan ximino batek oihu egin zukeen.


Pamacariaren zolan jarririk zegoen Jose, sudurra belaunetan. Noiz behinka begiak altxatzen zituen niri so egiteko, bihotza hits. Joaten ginen beti ere aintzina, bainan ibaiaren erdi-erditik!

ALTA BADA BERRIZ ERE, AINTZINETIK EZIN
ASMATUZKOA GERTATUKO ZEN: NEURKADA
LILLURAGARRI HORI INARTATZEKO JOAOK
TAFIA EKARTZEA ASKI IZANEN ZEN. BERE-
HALA INDIANOAK LEHERTZERAINO BELAUN-
KA EDO LOTAN IBILKI IKUSIKO ZIREN.
USTEGABEZKO BEZAIN DEITORAGARRI IZA-
NEN ZEN.
KARPALDERUNTZ HERRIXKA ONDOTIK IBI-
LIKO NINTZELARIK, JOSE HIPAKA AURKEZ-
TUKO NUEN, ETXOLA BATEN ZOLAN.

*"URKA ALA TIRO, NAHI DUZUEN BEZA-
LA".*

GUISCARTEK ERABAKIKO ZUEN:

*"FUSILAK! BEHARBADA IKUSGARRI
GAITZAGOA, BAINAN HIL DEZAKETELA
IKUSI BEHAR DUTE INDIANOEK".*



ETXOLETARA OLDARREAN BAT-BATEAN OIHUZ HASI ZIREN, IZIGARRIA ZEN HEIAGORA. GERO, ETXOLAK, ELIZA, GURUTZEA SUAK HARTU ZITUEN. IBAIRA ITZULI AINTZIN, BI GURUTZE LARRI EGIN ZUTEN INDIANOEK.

ETXOLETARA OLDARREAN BAT-BATEAN OIHUZ HASIKO ZIREN, IZIGARRIA IZANEN ZEN HEIAGORA. GERO, ETXOLAK, ELIZA, GURUTZEA SUAK HARTUKO ZITUEN. IBAIRA ITZULI AINTZIN, BI GURUTZE LARRI EGINEN ZUTEN INDIANOEK.

Eguerdi irian, hegitik etorri zitzaigun hustu kantu tehenta ezin minago bitxi bat: lau nota itzulimitzulika.

Txistu bat Amazonetan? Harritua nengoen. Eta Manolok:

"Xori bat ahal duk?"

Josek ihardetsi:

"Muren xirulak heltzen garela dio".

Oren laurden bat iraun zuela xirulak, ustegabetarik agertu zitzaigun mura herria, Japura eta igarape baten juntan, bere gudari denekin, denek guri so, geldi-geldirik, tindaz gorri-gorriak, arku-aztaz sagarroi. Tapuya bat ere ez zen gehiago arrauka ari: Prai Mathiasek piragoak bazterrez-bazter emanarazi zituen eta erran zigun:

"Ez zaitzte beldur izan, aintzinetik asmatzekoa zen hori guztia: nehoiz ez dira ustegabetarik atxemanak izan Murak. Horien aurrean leihorretaratu beharko dukegu. Ehun bat gudari Satanak bezain treberen aurkako gudukarik ez, alabainan, fusilekin ere ez! Besteak beste, bakar-bakarrik gara hemen, oihan basan barna, ezin ihesirik... Ez beldur izan alabainan... Jai-nak zaintzen ari gaitu... Baketiarrak garela sinetsarazi behar diegu, gostaia gosta!"

Sineskaitz nengoen: gure fusilak eta Indianoen arku-aztak amesten nituela?

"Soropilaren puntan leihorretaratuko gara, eta gero aintzinatuko, emeki, adiskide gisa..."

ZERTAKO GOGOR EGIN?
ZERTAKO GOGOR EGIN?
ZERTAKO GOGOR EGIN?
GOGOR EGIN?
GOGOR EGIN?
EGIN?
EGIN?

EZTEIAK OSO LAÑO IZANAGATIK ERE, BI FAMILIAK, ASPALDIKO ADIXKIDEAK IZANKI, EZIN ALAIAGO IZANEN ZIREN...

ZERTAKO GOGOR EGIN?

AINTZIRA EZ ZEN ZABALA IZANEN, BAINAN OIHANEZ HERTSIKI INGURATURIK, UR EREMU BELTZ, GOGOR, ARGIZPIRIK GABEKO BAT IDURITUKO ZUEN. ERDIAN, ZANKALUZ BAKARTI BATEK HATZ BAKAR BATEN GAINEAN LO EGINEN ZUEN. XINAURRIEK MIRAKUILUZ ETXETZAT HAUTU IZANEN EZ ZUTEN GOROLDI UNE BAT AURKITUKO NUEN.

JAUNTZI ARINAK KENDUKO NIZKIOLARIK, EZ NUEN HAREN AURPEGIA IKUSIKO, BIZKARREZ ARGIRA IZANEN BAITZEN. BAINAN GOROLDI OHEAN ETZANIK, DIRDIRATUKO ZUEN ARGITAN.

ETA PRAI JOSE EMANEN ZITZAION AUHENARI. ETA TIPUS-TAPAS PRAI MATHIAS EZTITU EGINEN ZEN.

ETA PRAI JOSERI SO ETA SO, ERRANEN ZUEN KONFITEOR BAT.

ETA PRAI JOSE EZ ZEN AUHENKA ARI IZANEN GEHIAGO.

ETA PRAI MATHIASEN BOZA ENTZUNEN ZEN, KONFITEOR ONDOAN, KREDOARI LOTUKO ZITZAIOLA.

ETA PATER NOSTER BAT ERRAITEN ABIATUKO ZELARIK, JOAOK HILGO ZITUEN.

Bi ibaiekin batera, gudari gorrien lerroak belar horizko triangelu bat mugatzen zuen: bospasei itegun estalgabe haietan geziek ixpilingatuak izanen ginatekeen lurrean, gudurik izanen bazen!

"Gure taldeak baitezpada iduri dezan kaltegabekoa, armagabekoa nahi dut. Ez dira lehorretaratuko, Muretaratuko, Prai Jose eta biekin, bi Indiano pareak eta neskatxak baizik".

Ixiltasun xorta bat, eta gaixoak, denak, auhenka, Rufina eta Añarrosa hipaka... eta nik oihuka:

"Ez, ez eta ez! Gaixtagin ero ahalgekorra! Ahulenak aintzinean eman! Hilketaren ergel desohoragarria izanen duk!"

Guiscartek elkorrena egin zuen, bainan Prai Mathiasek deplauki ihardetsi zidan:

"Senhor Elixondo, nik hemen manatzen. Eta gure zaintzea Raoul Guiscarten bizkar ematen dut. Jarraikiko zatzaizkioke".

Eta Frantsesari:

"Bainan, otoi, ez tira lehenik!"

Sotana goititurik, Karmeldar zaharrak azpadura ixtapeka iragan zuen, eta Rufina, Añarrosa eta Indianoak jadanik zeuden untzian sartu zen.

"Zato hunat, Prai Jose".

Hau hainbat dardaraka ibiltzen zen nun Manolok lagundu behar izan baitzuen, egariteen aldatzean.

Kurutzearen seinalea eginda, Prai Mathias Aita gureari lotu zitzaion. Nihoiz ez dut ahaztuko aldizkako otoitzetan geure bozen zurrumurrua.

"Jo aintzina!" erran zion Karmeldarrak. Berehala Guiscartek:

"Gizon bi, Elichondo-Manoloekin, laister... Ederki. Untzi batekin igarape iragan, oihanbatterrainoxe, eta han geldi: Murengandik hurbil izanen zaratekete; tiratzen ahalko dukezue, gurentzat kaltekor izan gabe. Murek mehatxa baditzate, berehala tiro! Bainan, zerura, zerura, aditzen? Ni, beste untziarekin soropilaz bestaldera joanen naiz, Japuran. Nire bost fusilak atxikiko ditut tiroaldi larriago bat egiteko. Argi? Ongi. Zoazte, laister!"

Bi egariteak tipus-tapas abiatu ziren. Murak tente oraindik zeuden, pazientzia ezin ahiturik. Oihaneko matraila hirukoitzak tinkatutako ur hits horien gainetik, ixilkeria lehertzale.

Nik arrabariei ahapeka:

"Laisterrago, jo, jo!"

Soropilera jadanik jauzia egin zuen Prai Mathiasek. Ur kurutzera heldu ginen, tapuyekin untzian gelditzen zen Joaok leihorrera Indiano beldur-izituak aurtiki zituelarik. So luze luze bat igorri zidan Añarrosak. Haren begietatik jalgi behar izan nuen, etsitu-asaldaturik.

Bat-batean, Murak kexatu ziren; luzean ikustzaileak bezala, buruak ezker-eskuin ikusten nituen, Guiscarten untzia eta nerea barrandatzeko. Eta nik: *"Laister! Laister!"*

Proosione hauskorra abiatua zen, bi Karmeldarrak buru; neska-Indianoen artalde kordokaria gibeletik. Gu, ur bazter biketsuan gelditu ginen. Gugandik hogeitamar ixtapetan xutik egoten ziren gudari gorriek boz karranka eta lurrean jo eta jo oin hutsak entzunarazten zizkiguten. Beren gelditasun izigarria galdua zuten, itsas-kanazko puntadun aztak zalanztatzen ari ziren. Beren atzean, etxola hurbilenetako

EGUZKIK AZOTATU ETA, SOROPLETIK ZEHAR BITXIKI KLANKATUKO ZIREN BI GORPUTZ GORRI IHESARI EMANAK BESTERIK EZ NUEN LEHENIK IKUSIKO, ETA GERO, BAT-BATEAN, HAIEN ATZETIK, HAREN BURUA LURREAN PUNPAKA, BELAR ZIMURTUZKO ILDO LUZE BATEN MUTURREAN. DENA ORROAZ ARI, LAUHAZKA LOTZEN NEURE HANKAK SENTITUKO NITUEN. ETA BAT-BATEAN, KOSK IZIGARRIA GARONDOAN... BEGI ONDOAN BELAR LASTO HAUNDI NAHASI... NIREGANDIK BEREXIAK BEZALA ESKUAK, ARMI-ARMO GISA LURRAREN GAINEAN IBILKI... BURUAN GORA, PONPOIL LANBRO-BURRUNBA... XIMIST KOSK BERRIZ... DEUS EZ...

"ONA DA GIZON XURION JAINKOA. BERE APEZARI MINTZATU ZAIO. HOBEN GUTIEN DUTENEI BARKA ZIEZAIEN MANATU DIO. BI GUDARI HAUK BAKARRIK HILEN DIRA. BESTEAK LIBRO!"

ziloetatik, haur-emazte aurpegi geldi batzu; sorotxaz bestaldean, gu bezala zelatan Guiscart eta soldadoen buruak, bai eta beren fusilak ere, ikusten nituen.

Zinak eta minak nituelarik, belar gune erdian, esku hutsak gora, Mathias eta Jose aintzina joaten ari ziren...

Murengan bat-batean dei motz bat, lerro osoan kurritu zuen beso higidura zalu bat, eta terpenki gure lau fusilek ihurtzuri-ukaldi bat. Begiak apaldu nituen, neure armaren kargatzeko. Berriz so egin nionean, Prai Jose besteetatik berezi zen: Aintzinean bakarrik, besoak zabal, trankoka ibiltzen zen, irriñoa ahoan, eta mura mintzairaz hitzegiten...

Gure tiroaldiak balditurik, baratu ziren Indianoak; haietarik bik, belauniko, hiru urte horretan ahaztutako lehenagoko obediencia-jestua aurkitzen zuen, arku gehienak ordea dardaratuak zeuden.

Bere boz larriaz oihu egin zuen Prai Mathiasek, tupi mintzaira eta umaua hizkuntza elkarrekin presan nahasten zituela:

"Arkuak lurrera! Lantzak lurrerat!"

Gudari lerrora heldu-eta, iretsia izan zen Jose: erdi-eroturik jauzi egin nuen hegira, belarrean laisterka hasi nintzen, erroetan behaztopaka, ziloetan kordoka.

Nire gibeletik Manolo eta soldadoen zango-hatsak entzuten nituen. Bat-batean, nire begi-belarriek dena nahasi zuten: deiadar itzuli-mitzuli, aztak besoak gorputz gorriak... Ez dakit zer nolako mirakuluz tiroa eman ez nuen!

Gogo berriz aurkitu nuenean, alde batean Guiscarten, bestaldean Manoloren soldadoak ikusi nituen; fusilen hartzekien kurutzatzean, nire aurrean, Muren erdian, Jose zen mintzo eta mintzo... Jadanik azta, arku eta gezi batzu ihaurre ziren. Sarraskia oraino gerta zitekeen minutu bat bazen nun gudariak tai gabe buruak zehartzaren baitzituazten, nun fusilak begiratzen.

Mura xarnegua zen Rufina aurrera bultzatu zuen Prai Mathiasek, hura ere mintzatzeko hasi zen. Hurbiltzeko urrats bat egin zuten soldadoek, bainan Guiscartek, boz idorrez, geldierazi zituen. Eta gero, haurrak, emaztekiak, banazka etxoletatik batera ziren eta gureganatu. Azken aztak lurreratu ziren. Josek besarkatu ninduen:

"Jainkoak entzun niauk, Jean, zoriontsuena nauk!"

Laisterka etorri eta, Joãoak eta gure Indianoetatik bik armak biltzen zituzten.

Orain ere, hogeitun buruan, egun hartaz gogoetak egiten ditudanean, bururatze kanore-gabeak harritzen nau; nola gudukatu beharra baztertu ahal izan ote genuen nago!

Badakit Indianoek ez zutela fusilen hilgailukeria ahaztu; Guiscartek ez tirarazteko odol hotza izan zuela; hogeitun bider gehiago ginela Murek sinetsi izan zutela Manolok zioela; eta Josek haien egon-moldea, mehatxua ezik, ez zela ongi-etorri zeremonia baizik izan.

Uste dut alabainan, Murak gudukaren beha zeudela, eta nire tarrapataldiak gure sarraskitzera akulatu beharko zituzkeela. Hamaikagarren aldikotz galde hauxe egiten nuen egun batez, ihardetsi zidan Josek:

"Gaixo Jean, Ulertu nahi ez duana, Jaungoikoak egin zian!"

KRISTO OINAZETSUAREN IZENEAN

Gau hartan gaizki lo egin nuen. Gudu ametsetan nenbilen, Indiano edo karlista nor ziren batak, nor ere besteak, zein taldekoa nintzen ez bainekien... Azkenean, Muren buruzagia nuen Zumalakarregi haundia, eta ni hari tiroka... Ingumak hartua ninduen eta pozik atzari nintzen: Manolo ez zen gehiago nire ondoan. Boz harrabots batek kanporatu ninduen. Eguzkik jo dundun-ukaldia hartu eta, berriz ere ikusi nituen Indianoak, guregandik hamar metrotan ixilikako lerro geldi bat osatzen zutela: zelaritiek bezain liluratuak iduritzen zituzten: hegitik hurbil, elgarri oldartzen ari zitzaizkion bi Karmeldarak: Prai Mathias orro-oihuka, motelka, odol-kolpek jo bezala; Jose ordea, ezpata bat bezain tinkatua, gorputz osoaz dardaraka.

"Aski Xarnegu zikina!... Jasaten haut... Jasaten haut... Isilduko haiz... Agintzen diat, entzuten? Agintzen diat..."

"Hiltzea trabatuko dut! Ez dituzu gure sotanak zikinduko..."

"Ixilduko haiz... Neure menpean hago entzuten?"

Ez zuen alabainan amor ematen Josek:

"Jesu Kristo saltzen duzu. Odoltze hori gure eta Elizaren kaltetan izanen duzu!"

Bat-batean, Josek ni ikusi eta, bere begiak argitu ziren.

"Jean, hel! hel! Hiltzaileak geldiaraz!"

Mathiasek goihen-barren begiratu zidan; haren aurpegia haunditzen zela ikusi nuen, ileak zuri, ohalano hasarre batena bezain potzolo-putzulu:

"Ez dut bi apezan sarraskia gaztigurik gabe utzi nahi!"

Oihu egiten ari zen Jose:

"Handik hiru urtetan! Guk apezok urrikaldun izan behar! Gizon daude!"

"Nik manatzen ditut hobendunak bilatzea eta denen aintzinean hiltzea".

Ur hegian, lasaiki, pipaka, Guiscart ibilki ikusi nuen. Manolok aldiz, kokorika jarririk, so egiten zidan, trufaka. Josek murrurikatu zidan:

"Gure Kristo maitasun-Jainko duk..."

Neure kontzientzia eta karguaren artean hertua nengoen. Hirugarren bide bat zelakoan, erran nuen:

"Haieztatik batzu hil eta, beste Murak errabiatuak eginen ditugu. Gure egoera ez dago hain garbia, ez eta hain sendoa ere..."

"Zu, Jean Elixondo, zu zeu hola mintzo? Atzo hainbeste balentria egin zenuena? Geure inäarra aldiz Murei erakutsi behar diegu, lehen egunetik harat geure justizia sartu."

"Izigarriki beldurgarri ager gakizkien gure Jainkoa eta guhaur. Bestalde, gogoan har ezazu arma guztiak dauzkagula, baita ere ez datekeela hoben aitahiltzaileen zigortzea!..."

Jabaldura, boz noblezia eta mintzo ospetsua aurkitzen ari zen.

(Ohore-min-bera zelarik Karmeldar zaharra, Indianoak zainbiderik gabe zeudelako itsuskeria zela erran niezaioken, Kristoren maitetasunezko dei indartsua gogora niezaiokeen, zalapartaka ari nenkiokeen.. Berriz ere gaur, zinak eta minak aurkitzen ditut, berriz ere orroitzapenen samindura neurtzen dut, iraungi edo aldatzeko gure nahari gogor egiten diotela).

EMAZTE BATEK OIHULUZE SAMINA IRRINTZITUKO ZUEN, ETA PIXKANAKA, OSTE OSOA ABIATUKO ZEN GUREGANA... URRATSEZ URRATS AINTZINA, HAREN AURREAN, GURI BIZKAR, BI GUDARI ZUELA, KOKORIKA, ORDUZ KANPO PUNPATZEN ARI, IZANEN. SOLDADOEK TARRAPATAKA ARMAK KARGATUKO ZITUZTEN.

IBAIRA ITZULI AINTZIN, BI GURUTZE LARRI EGINEN ZUTEN INDIANOEK. GURUTZEOI JOSIKO ZIZKIETEN. ARGITAN ORDUAN IZANEN ZIREN. BEGITARTEAN, BULARREAN, ODOL-MAILAK IZANEN ZITUZTEN. IXTANT BAT, GELDIRIK EGONEN ZIREN, ZURI BURUAK BERMATURIK.

KONDUAK EGIN BEHARRAK IZANEN DIRA.

JAUNGOIKOA LAGUN BERRIZ ERE GURUTZEA
SAO JOAO DO PRINCIPEN ALTXATUKO DUGU-
LA BAINA EZ DUDALA ONGI HEL GAITEZEN
HARI GALDEGIN NAHI HARK BAIZIK EZ BAI-
TAKI GEROKO ARRAZOINEN ETA BERE ES-
KUINEAN GAUZKANON BERRI OTOITZ OR-
DEAN ELKARREKIN EGIN BEHAR DUGULA
HASARRE GORROTO ZERNAHI MOTA GURE
BIHOTZETIK BAZTER DEZAN BAITA GOGOR-
TASUN ARRANGURA ZERNAHI MOLDE ERE
EGIA ESAN JAUNAK BIDALITAKOEN SARRAS-
KITZEAZ ETA GURUTZE SAINDUAREN ERRO-
TIK EGITEAZ OSO OSOKI HOBENDUN IZAN ZI-
RELA INDIANO HAIK BAINAN BELDUR NAIZE-
LA EZ OTE DITUZKEGU HILKETAZ HILAK
MENDEKIOZ HARROKERIA HASARREZ SENTI-
MENDU GABEKERIA ORDAINDUKO.

ZONBAITETAN JOSERI SO EGINEN ZION PRAI
MATHIASEK, HOBEKI KAUSITUKO OTE ZATE-
KEEN XARNEGUA...

ANARROSAREN BEGIEK BEREHALA IHES EGI-
TEN ZIDATEN...

NI NAGOELA ZERTAKO OTE GUREKIN HAR-
MADUN BATZU APEZEK BAIZIK EZ LUKETE-
LA MAITASUNEZKO MEZUA ZABALTZEN IBI-
LI BEHARKO ESKU HUTS URRIKARIDUN
APEZ MILA BIDER KOLPAGARRIEK JAUNEN
JAUNA MARTIRIOA GALDATZEN DIZUDALA
ESTIRA ETA HERIOTZEA EMAN OTOI IEZAZKI-
DAZULA.

maiatz. 16

Prai Mathias mintzo eta mintzo.

Beti pipaka, Guiscart gelditu zen.

Begiak zabal-zabalik, gorputz osoa dardaraka,
Josek bata bestearen ondotik begiratzen gintuen.

Guregandik hamaixtapatara gelditzen ziren
Murak, ulertu gabe entzuten gintuztela.

*"Atzo salatze batzu xuxen-xuxenak bildu di-
tut. Goiz honetan bururatuko dut neure iker-
aldia. Eguerditan hilen dira. Hil-bidearen hau-
tatzea zuen gain uzten dut: urka ala tiro, nahi
duzuen bezala".*

"Fusilak! — erabaki zuen Guiscartek.

*"Fusilak! Beharbada ikusgarri gaitzagoa, bai-
nan hil dezaketela ikusi behar dute Indianoek".*

Holaxe amaitu zen jokutrialdi hura.

Ez nuen nahi izan galdeketaren denboran hor
egon. Geroztik, Manolok kondatu zidan, itzultzaile
baten beharragatik ere, errekkiegi egin izan zela: ge-
zurra erran edo beren erranaldien gogorkeria ezti ze-
zaketenik ez zuten iduriz asmatzen ere Murek. Prai
Mathias bera durdudazuran zegoela omen zirudien.

Azkenean sei Mura berexi zuen, Manoloren us-
tez menturaxera... Lau zelatarik zainduko zuen e-
txola baten itzalpera joan ziren eguerdi eta heriotzea-
ren haiduru egoteko.

Indianoen ostetik gaindi haien ibiltzeak suka-
rrezko harramantza sortarazi zuen. Ordu baten den-
bora palabratzen pasatu zuten, eta gero, denak bate-
ra ttuku ttuku etxolaren aurrean erronda erdi bat
osatzeke joan ziren eta han egon, geldi-geldirik, ohar-
tuki, zainak airean zeuden zelatarienganako ikusaldi
bat ere gabe.

Jose etxolan sartu zen, kurutzefika eskuan.
Epe luze baten buruan, ateratzen ikusi nuen,
ezkibel, betizu bezala.

Ondoko gertakarietan parte hartu nahitaez be-
har izan nuen. Lau soldadok eta kaporalak hiltzea
egin beharko zuten. Beste harmadunek egitea zaindu
beharko zuten. Guiscart eta biok oihanbazterrean ja-
rri ginen. Taulako beste bi kantoinak soldado batek
eta Manolok zaindu zituzten. Erdi-erdian, Muren ar-
taldea hil-Ihauteri batendako bezala.

Zelatariak inguratutako kondanatuen aurrean,
emeki sartu zen Prai Mathias, lehen Indianoaren gan-
dik bi urratsetan baizik ez zen gelditu. Begitarke ilun-
iluna zuelarik, haren ondoan jarri zen Rufina.

Gorputz gorri andana bat gohain-iguzkiren
pean tente, fusilak barrandan, emazte xarnegua be-
giak behera, fraile soraioa, hori bai ihakina!

Eta Mathias mintzo:

*"Aspaldi du Mura gudariak gizon xuririk hil
izan zutela. Gizon xurion Jainkoaren itxura
erre egin zutela ere, beren jainkoa bihurtu ze-
narena, alegia..."*

Rufinak itzuli zuen, tehenta bereko boz nagiz.
Hitz batzutan behaztopatzen zen eta anartean, In-
dianoak hasten ziren mutzika-xixaxoka. Berriz Ma-
thiasen eskua gora; bere boz ozena ixiltasunean be-
rriz karraska.

*"Gizon xuririk hil dute gudariak. Bainan guz-
tiz boteretsua dago gizon xurien Jainkoa, eta
gizon xuriak gibelerat beti etortzen dira. Eta
berehala fusilek gudariak hilko dituzte..."*

Rufinak itzuli eta, xixaxokatzea enbata galer-
na bihurtu zen. Bainan Mathias mintzo berritan, eta
berehala ixiltasun sakona jarri zen:

*"Ona da Gizon Xurion Jainkoa. Bere apezari
mintzatu zaio. Hoben gutien dutenei barka
ziezaien manatu dio. Bi gudari hauk bakarrik
hilen dira. Besteak libro!"*

Itzultzea igurikatu gabe, soldadoek lau Mura zizpa-ondoak bulkatu zuten; beste biek ondolik ibili nahi zutelarik, beren burua ikusi zuten lau fusilek inguraturik. Bat-batean, Guiscartek oihu motz bat egin eta, dena lehiatu zen. Oihan bazterreruntz kondenatuak lasterka bulkatu zituzten soldadoek. Gaitzeko zuhaitz baten pean, soka bat eskutan zain zegoen bi tapuya.

Basaki josi zitzaizkion enberrari bi Murak.

Hats-bahika, soka tira eta tira, jiraka ekin zioten zutoiari tapuyek; jadanik soldadoak lerrotan ezartzen ari ziren.

Bizkitartean arrabosta izigarria bilakatua zen. Indianoek guregana lasterka egiten zuten, oro keinu eta hurrubi.

Soldadoen fusilak dardaratzen ikusten nituen. Ni neü ere ikara nintzen. Beldur nintzen.

Iskanbilaren artean Mathiasen ahoa mugitzen ikusi nuen. Eta bat-batean, kondenatuak oihuka, zuhaitzetik askatzeko jauzika hasi ziren, lau fusilek ortzantza egin arte: Ihurtzuri ukaldia ixiltasun sakon erditik luzaz ozendu zen, ibaien pasaiatik bihurtu zen, eta oihaneko hiru ahoetatik oihartzean berriz etorri zitzaigun. Laisterketa baratu eta tente, Murek so egiten zuten: gorputzetatik bata soka zerrailuaren gainetik eroria zen, bestea zuhaitzari josia zegokion, zehharka, mozkorti baten gisa, begiak zabalik zituela, matraila dilindan; odola soin gorritik inarroska jalgitzen hasten zitzaion.

Emazte batek oihu luze samina irrintzitu zuen, eta pixkanaka, oste osoa abiatu zen guregana... urrats ez urrats aintzina, haren aurrean, guri bizkar, bi gudari zuela, kokorika, orduz kanpo punpatzen ari. Soldadoek tarrapatata armak kargatzen zituzten.

Alta bada berriz ere, aintzinetik ezin asmatuzkoa gertatu zen: neurkada lillurigarri hori inhartzeko Joaok tafia ekartzea aski izan zen. Ustegabeko bezain deitoragarri izan zen. Berehala Indianoak lehertzeraino belaunka edo lotan ibilki ikusi ziren.

Karpalderuntz herrixka ondolik ibiltzen nintzelarik, Jose hipaka aurkeztu nuen, etxola baten zolan.

Biharamun goizean, soropilaren erdi-erdian xutik zegoen gurutze alimale latz bat. Ordu bat geroago, haren pean eman zen lehen mezan parte hartzeko, Mura emaztekiek bular-hankak gure kotoin-oihalkiez gorde izan zituzten. Baita batzu ere, hegal batez burua estalgitzen saiatzen ziren, Añarrosa eta Rufinaren gisa.

Bere herriaren lana antolatzeko laister egin zuen Prai Mathiasek.

Joak banakatzen zituen azote-ukaldiek sustatutako Murek eliza bihurtuko zen hei zabala eraiki zuten, argi-tirrintatik gau arte kirriskatuko ziren hiru gaitzeko orga egin zituzten, oihan zati zabal bat labakitu zuten...

Landatzeke erretzekoak ziren bi itegun hesolhesiz inguratu behar zituzten.

Indiano batzuk egunero beren untzi mehatxeekin arrinkari joateko baimena bazuten, libro. Haur-emazteak alabainan bahi gisa zeuden.

Zaurituak, eriak, haur lanez akituak artatzen ari zen Añarrosa. Josek, berriz, lan neke eta apalena berezia izan zuen: labakitze ezin bururatuan Murekin batean, eskuak odoltsu bihurtzen zitzaizkion.

“NAHI AHAL DUZU,... NAHI BADUZU...
HEMENDIK HURBIL DAGOEN AINTZIRA
BATETARAINO ELKARREKIN JOAN BAGA-
GINTEZ...”

GURE INDARRA MUREI ERAKUTSI BEHAR
DIETELA HIL DEZAKETELA IKUSI BEHAR DU-
TELA INDIANOEK IZIGARRIKI BELDURGARRI
AGERTU BEHAR DUGULA BEHARBADA IKUS-
GARRI GAITZAGOA IZANEN DELA BAINAN
GUZTIZ BOTERETSUA DELA GURE MAITASU-
NEZKO JAUNGOIKOA ONA DELA GIZON XU-
RION JAINKOA APEZEK URRIKALDUN IZAN
BEHAR.

ETA NI

MANEX ELIXONDO
ONDO
ONDO
ONDO

ZU JEAN ELIXONDO ZU ZEU HOLA MINTZO NI
NEU MANEX ELIXONDO HOLA EZ MINTZO.

GAIXO JEAN ULERTU NAHI EZ DUANA JAUN-
GOIKOAK EGIN ZIALA
EGIN ZIELA
EGIN ZIGULA

EZ ZAITEZTE BELDUR IZAN? AINTZINETIK
ASMATZEKO ZELA HORI GUZTIA?
GUZTIA?
GUZTIA?
GUZTIA?

(jarraitzeko)

maiatz. 17

BARBARA EDO DESESPERANTZAREN ESPERANTZA

Egun ilun eta triste
Buru huts eta minbera
Zure abots magikoa
Barbara
Supaster ondoa
Argi ezia
Insenzio usaina
Lur bustia
Goxotasuna
Bizi nahia
Desesperantza
Amodioa
Hil nahia
Erotzea
Idaztea
Musika
Barbara
Zurea eta nerea.

Mari Amestoy
1983ko urtarrilaren 29an.

májan minaberi

Nahi duzu olerkia
Izan dadin lisatia,
Ponduetan beti berdín
Moda zahar, mutzu urrin.
Irri dauzut, nik egiten.
Zerk zitu ba zu lotsatzen?
Nola negurt, olerkia,
Karkailaka zoriona
Bihotzean balinbada ?
Malurrean, zorigaitzez,
Bazirade egun batez,
Nola hauta dobladura
Bada hotza hitz zaharra?
Nola legunt nigar-hipez
Eta ere bihotz-minez
Ehoa den olerkia?
Ez da beti xoriñoa
Bide beraz hegaldatzen.
Lore bera du xurgatzen
Zure ustez jainkoiloak?
Kantu bera du moldatzen
Aldi guziz haize basak?
Bertsu berri, bertsu zahar,
Ez da segur zendako har
Gasailatzen. Utz gaztea
Segi dezan bere xendra.
Bertsu zahar, bertsu berri,
Bihotza du hak kantari.

ZAHARREGI, TTIPIEGI...

Supazter xoko xokoan nor ote dago?...
Sua bistan da, baina dena aho, dena begi, he-
zurak xorrotx xorrotxa, hor dago ere aitatxi.
Gaixo aitatxi, nor da zutaz oroitzen geiago?...
Zutaz oroitzen...
Nor zaizu mintzaten? Mintzaten...

Sua piztu dizut "Suak berotzen nau". Zero-
nek diozu baina egia erraiten ote duzu? Ez, ez dita-
ke hori egia, egia besterik da, besteek ulert ez dezai-
kezuen egia.

— "Ametsetan nago!"

Nahi zenuke erran eta ezin duzu. Besteek ez
dute ametsik, nun dute astia, denbora, ordua?...

Zeure eskuak, esku higatu horik perekatzen
dituzu, polliki, emeki, emazte zenak perekatzen zaiz-
kizun bezala.

Esku zimurtu horik... hezur xorrotx horik...

— "Ametsetan nago"

Emazte zena, haitzurra, aizkora, etxe bazterre-
ko piko ondoa, etsaiak, lagunak, hilak, biziak...

Iñor ez zaizu mintzaten. Zertako mintzatuko
zaizkizu?...

— "Zer balio dut orain? Orain ez dut baliorik...
zango bat hobian, horra zer naizen orain... Nori zaio
axola?... Nori zaio axola nere ametsak nolakoak di-
ren? ..."

Horrela mintzo zen aitatxi.

Gizonik? Ez zegon entzuteko... Emazterik? Ez
zegon entzuteko...

Populurik? Ez zegon entzuteko... Arimarik ere
ez zegon...

Baina zerk dirdirutzen ote zuen bere begi bus-
tietan?... Zer ote zen argi hori? Pindar hori?... Nun-
dik zetorkien bat bateko ezpainen dardara hori?...
Aitatziren ezpainak ikaratzen ziren, mugitzen eta
bizkitartean ez nuen deus entzuten.

Entzuten?... Zer diot?... Baina ni ttipiegi naiz
entzuteko, pentsa zortzi urte baizik ez ditut. Ez ote
didate orok erraiten "ixilik hago! Hi ttipiegi haiz
oraino! Hi ttipiegi haiz... ttipiegi haiz..."

Bai, haurrak ez zakien batean ttipiegi garela
eta bestean zaharregi. Ttipiegi, zaharregi non ote da
hein ona, noiz ote da gizona bere neurri onera hel-
tzen? Noiz ote da bere adinaren betea? Noiz bere
neurri egokia?...

Aitatzirentzat ez zegon neurri egokirik, haurra-
rentzat ere ez. Besteek, neurri oneko jendeek, ame-
tsik eta beharrik gabekoez, ez zieten permetitzen
holakorrik.

Zaharraren neurria sua zitakeen. A! Suak erre
baleza, sura eror baladi... Alabaina, guziak dakizu
zaharrak suko direla. Egurra bera, zahartu arau ez
ote dugu sura botatzen?...

Haurraren neurria mahaia zitakeen, mahaiaren
azpia bistan da. Baina zenbat gauza ez dira gertatzen
mahai baten azpian... gizonaren egiazko aurpegia ez
ote da beti mahai pean nabari?...

Arropez, jantzi ederrez itzaltzen, gordetzen ditu ikusi behar ez diren horik eta ahopetik erraiten entzun behar ez direnak. Baina haurra mahai pean dabila eta ikusten dizkio; entzuten dizkio entzun eta ikusi behar ez dizkiokenak oro.

Bat zaharregi, bestea gazteegi. Haur horrek nola ulert zezaken gizonen ziotena? Eta xahar horrek? Nola konpreni zezaken? Ez ote zioten ber horri ere erraiten.

"Haurtua zara gizona, Haurtua! Zureak egin du, haurtua zara..."

Haurrak ez zezaken konpreni, zaharrak ere ez. Bizkitartean egia zitakeen, dudarik gabe, gizon horik ziotena eta ez ote zuten mila aldiz entzuna "nik erranen dizuet egia! Nik erranen diat egia!"

Hots, dudarik gabe, neurri oneko gizon horik egia biribila zioten eta egia bakarrik...

Baina aitatzik ez bazuen deus erraiten, haurrak ez zuen guttiago pentsatzen. Zortzi urtetan, pentsa, anitz pentsatzen da.

Gauza bat bazuen oroz gainetik jasan ezina: eritasuna, gaixotasuna. Bistan dena, ez zen sekulan eri izan eta bizkitartean beti dena artamen ari zizaizkion. Ez zezaken konpreni zergatik, aitatzik eta bera, neurri oneko jende horik kontsideratzen zituzten bi eri bezala, bi enbalier bezala: bat zaharregi eta bestea ttiptegi. Mixterio horretaz ezin jabetuz, mixterio hutsean gelditu zen gaixo haurra.

Zortzi urteko haurrak begiratzen zion aitatzik eta egunaren argia guttituz zoala, horra, entzun zuela. Entzun zuen aitatzik...

Bi ameslari horik nola ez zezaketen elgar entzun, noizpait, denborarekin, astiarekin, orduarekin..

Aitatzik suarekin mintzatzen zen!

Suarekin mintzo! Eta suak kantu egiten zion, suak xirula jotzen zion, aitatzik horrenbeste maite zuen Xiberoko xirula. Xalbadoren boza, Etxahunen boza, Arestirena, Lauaxetarena, ehun boz, mila boz entzuten zituzten.

Loriagarriko xaramelak, xoriak, hartzak, arkaitzak, orok abesten zieten. Xahar bati eta haur bati kantatzen zieten...

Haurra ez zen harritzen, zaharra ere ez. Sua mintzatzen zizaien eta ez ziren izitzen, ez ziren ikaran jartzen neurri oneko jendeak bezala.

Sua mintzatzen zizaien poetak baiziren.

Xahar baten poesia, haur baten poesia, neurri onetarik kanpo doazen jendeen poesia.

lanathua

Bat zaharregi, bestea gazteegi baina haiek zakitena beste inork ez zakien. Haurrak eta zaharrak bazakiten beren bihotzen buluzten, beren bihotzen entzuten.

Gero, berantago, etorriko zizaiotenean jendea erranen zieten: "suarekin mintzatu gara eta suak gure bihotzak berotu dizkigu".

Baina jende horrek, jende presatu horrek, astirik gabe doan jende lasterkariak, ametsik gabe doan jende desterratu horrek ez dituzte sinetsi.

"Egia diozuet, egia! Entzun nezazue!", zion haurrak nigarrez eta garrasiz. "Badakit ni ttiptegia naizela eta aitatzik zaharregia baina horrexegatik zuek ikusten ez duzuen guk ikusten dugu, zuek entzun ahal ez dezuekzuen guk entzuten dugu.

Ez gara, ez gaixo ez eri! Egia diezuegu, egia! Xalbador, Etxahun, Xiberoko xirula entzun ditugu eta suak berotu gaitu!..."

Haurrak, etsipenez, desesperazioz eta ezin bestez, aztaparkaka urratuko zituen oro, lehertuko sagar usteldu batzu bezala. Joko zuen ama, joko zuen aita, papoan eta bularrean, begian eta sabelean, baina... horra...

Ez zakiten entzuten, ez zakiten egoten, ez zakiten geiago bihotzaren berotasuna zer zen, bihotzaren berotasuna ez zakiten nolakoa zitakeen...

Elurraren hotza edo suaren beroa ez zizaien axola... jada, hilak, bai ziren...

Zaharra zaharregi, haurra ttiptegi baina besteek ez zakitena bazakiten:... poesia kantatzen eta suaren aitzinean, elgarri bihotzaren berotzen.

HARRIENTZAT... HERRIENTZAT

Harriekin ezkondu ziren,
lehengoak,
aitzinekoak,
maitale paregabe horik,
maite zituzten zuhaitzen izerdi ezin sortuak,
lurraldetako errauts gazitsuak... eta,
gau argienetan,
izarren mihiseak hedaturik zaudenean,
zazpi sorginen hedagi miragarritik,
bildu zizkiguten,
josi, errespeturekin,
amodioen morteroaz...

Polliki eta prezioski,
Haur sobera maitatueri bezala,
oihal dantalezkoak eman eta inguratu zituzten,
gu, hainbat hoztuen,
bihotz gainera...

Harriekin ezkondu ziren haiek,
izerdizko destrenpuez
busti bazituzten beren emazte pollitenak
zergatik semeek ez zuten berdin egin?...
Ez dituzte segitu,
ez dira haieri berdindu,
ederrez edo ohiturez
plazetan boneta buruan baldin badoaz ere...

Gerezi gorrienak jan ondoan,
zenbat gerezi ondoren izerdi sortua,
ez dute lurperatu...

Debalde, su ondoko oihala dantalezkoak,
debalde, aitzinekoen ezkontzak,
geroztik, denbora joanez,
zazpi sorginen gau argienak ahantziz,
maitasunaren zizelez,
ez du nehork geiago ebaki harririk...
Herri hontako,
xixelkarien kantuek,
nola eta nundik,
xarmatuko dituzte
hego haizea eta ilargia?...
Harriekin ezkondu ziren haiek bezala...

Nik,
joan nahi badut,
lehengoek piztu didaten su ingurura,
ezkont nadiela baserri sakratu honen,
harrien,
destrenpuari.
zazpi izarren,
zazpi sorginen,
oroitmenez...

ERRETXIK

Neurri zan heure burua,
eta,
hire aitzinean,
ogi xigortuaren karraska behartuarekin,
arroka gogorra plegatuko dunanean,
mendiak,
onhartuko hau,
bere maitale bezala.

Deus ez dun erretxik,
hire barneko saretan,
denak,
probatzeko baidira,
urratsean,
patarrari goiti...

Haizearekin noa,
Haizearekin nabil,
Eta, haize lagun horrekin,
Bizia daramat
Tormentoetan...

Zentzuan sartua dut,
Aspaldi haizerik bihurrena,
Harrotu dizkit,
Baztertu dizkit,
Zentzudun guzien,
Arrazoinamendu finkatuenak.

Haizea sartu zait,
Burutik behera,
Ortzantz egun batez,
Egun hartan galdu ninduen...
Geroztik,
Buruko zain mehartsuenetan barna,
Ari zait firurikan,
Nire gezur ederrenak aurtiki beharrean...
Ari zait firrinta zarrenean,
Biziaz ditudan kolore maiteenak,
Zeru beltz horren ur hotzez,
Kolore hotz eta izotz,
Bihurtu beharrean...
Ari zait,
Deus errespetatu gabe...

Libratu zizkidan korropiloak,
Eta lanpustu hegien zorrotzak,
Bainan geroztik,
Ez dut gehiago bakerik

Hogoi urteko gazte lagunak
Zahartu dizkit hogoi urtetan...
Haizerik ez baitzuten nahi,
Orzantz egun batez,
Orai dabilta,
Zentzudun guzien arrazoinamendu finkatuetan...
Zer dion eta zer diok,
Hola duk, hola dun,
Gure zainetan haizeak ez din deus urratu,
Gure etxeko bakean, ixilik gaitun...

Ez dut gehiago bakerik,
haizea daukat zentzuaren zainetan,
ortzantz egun batez,
jo!... nauelakotz burutik behera,
orain ments,
eta ments guzien tormentoek
bihurdikatzen nauten hontan,
nahi zaituztet entzun,
hogoi urteko gazteak,
aments,
ments,
mestuetan.

Egun horretan, plaza zabelean,
ehunka, dotzenaka eta bakarrik,
ari zineten hitz eta hitz,
feriarik ederrenean bezala...

Ehunen, dotzenen eta bakarkien artetik,
haizeak zakarzkidan,
desertuetako galdutasunak oro...

Hasi nitzazue oihuka,
oihuz ez askiz, egin dizuet garrasika,
garrasiz ez askiz, egin dizuet negarka,
ixilean, ...
gaueko ainara hortik zoan,
jada, ixil ixilean...
Ari zineten zero goienean hitz eta hitz, besarketan,
xoramen gezurki baten mirarietan.

Sagardo horrek,
bere mila pindarrekin,
busti dizkit ezpainak,
baina ez dit bigundu arimarik...
Arren, berriz ere,
Lapurdiko ardo gorrienetik,
bete didate basoa,
horrek ere,
ez dit goxatu arimarik...
eta ehunek, dotzenek, bakarkiek,
sortzen zidaten,
desertuetako galdutasunik pisuena...

BAKARKIEN ARTETIK...

Nolako irri, nolako dantza,
burxoroetan ostoa hil bat bezala,
ainara bat airean pasatu zaigu,
ixilean...
mirari gezurki bat bezala, ...
ehunak, dotzenak eta bakarkiak,
alai daudenean,
nik desesperatuko dut...
ardo gorrienak ere,
ez nauelako mozkortzen arimaraino...

Egun horretan,
desertuetako haize latz galduetara,
ari ginen hitz eta hitz,
baina, lehen bezala, beti bezala,
ez gaituzte gure hitzek biluzi...

Nire aldean,
mutil batek egin du irrintzi,
Tabernero! Berriz ere,
aldi bat geiago,
zorigaitzezko zauri mintsuenak joan bitezen ihesi

ixur zaiguzu Lapurdiko ardo gorri hortatik
ehunen, dotzenen eta bakarkien artetik,
gure arima dadin ilusi, ...
berriz ere...

Etxe hau eskualde honetako seminarioa zen denbora hartan, gure herrian familia bakoitzean haur bat bederen Elizari eskaintzera lehiatzen omen ziren, ohore handia baitzen herritar guztientzat norbait haurrideetan elizako artzainetarik izatea. Gure fedeak zerbait ezin hautsizkoa zirudien, eta ipar bortitzak ekarri aro berriko ideia paganoek, Aturrin, ezin gaindituzko harresia kausitzen zuten, Jainkoak euskara eta katolikotasuna betirako juntatu balitu bezala. Giristinoki bizi zen gure herria, giristinoki jaten zuen, giristinoki ziren haurrak egiten eta altxatzen; hil ere, giristinoki hiltzen da gure herria.

Hazparne eta Kanbotik, Ezpeleta eta Donibonetik, Sara eta Azkainetik, Lapurdi guztitik, Nafarroa Beheretik ere, zernahi haur biltzen zen Seminarioa, oro bizi saildu baten besarkatzera gerturik. Dudak ez ziren haizu, eta betidanikakoa uste genuen lege giristinoa den mendrena kolpa zezaketen berrikuntza guztietan, deabruaren jokutria zenbait ikusten zen. Infernua ez zen oraino apezak ahalgeturik ezartzen zituen haurkeria, fedearren azkar atxekitzeko hura baitzuten zimentarririk tinkena. Zenbat haur-amets ez ote dituzte bete, prediku alkitik infernuaren itxuratzeko egin deskripzio izigarriek; sofrikarioa eta eternitatea euskaldun gogo irudimenerrikoetan elkartu beharrez, zenbat metafora, zenbat gonbarantza, mugarik ezaren mugen urruntzeko! Eta orduan azkar zen gure herria, baitzekien gauzen nondik norakoa; fier zen egiaren jabe eta defenditzailea zelako. Euskaldun ere zen. Ez zekien bere buruz beste egitera kondenatua zela.

Errobiaren ondoan, Larresoroko lurretan altxatua, hor dut aitzinean mende eta erdi batez hemengo jauneria guztia eskolatua duen Seminario zaharra. Aspaldi honetan hutsik dago, arrunt utzia. Badaukit batzu loriatzen direnak, ilunbean ginauden denbora hartako bele beltzen jauregia hondamendutan ikusiz. Lo belarraren kontua. Egiak bere bidea; gezurrak zangoak labur. Erran zahar, sineste berri. Segurtamen oso eta erosoak. Bizkitartean nola uka: azpian ginduzkaten, umil eta obedient nahi gintuzten. Aitzinamenduaren argiak ezin ikus zitzaketen gure begi itsutuek. Ordean, itsumenduaren bastiza desegina da aspaldi honetan: argia sartu da prefeten eskola eta gerletako burrunberi esker. Hauxe bozkarioa! Ba ote? Baietz bada.

Etxe hau duela ehun urte oraino, euskal herri honetako sentinela zen. Mundu zaharra suntsitzera zeraman uhainari ihardokitzeko altxatu zuten, Voltaire bere pozoia isurtzen hasten zen garaian. Libertatea ateari joka, aritzen gintzaizkion hemendik tiroka. Iraultzarekin ikasi genuen libertatea, gobernamenduak lehen aldikotz Seminarioa beretu ondoan Sara, Itsasu eta Azkaineko jendeak Aturriz haraindira bortxaz desterratu zituztelarik. Zenbat zuzen: hiru, lau, bost ala zazpi mila? Lepotik eginak kondatu gabe. Enian uste edaten ziala libertatiak odolik.

B. Bidegorri.

Denbora hartan, gurutzefika bide bazterrean ikusten genuen aldi oroz zeinaten ginen, halaber guztiak lanetik gelditzen anjelusak entzutean. Nagusiak errespetatzen ziren, eta ondasun hitzaren anbiguitateak ez zion inori gogoetarik eginarazten. Baina izpiritu argiek —mediku, notario, kanpainetako lurrez jabetu hiritar eskolatuek, laster errientek ere-pobrea eta aberatsa Errepublikaren legearen aitzinean berdín zirela erratan zutelarik, irriño dudaz eta ironiaz hantu batekin so egiten zien, bizitzekoaren biltzeko lehert eta zapart lurrarekin borroka ari izan behar ziren laborariak. Egia hori irentsi gabe hilen ziren dohakabeak.

Gure euskal herriak ez zuen banderarik, ez himnorik, ez izenik. Baina bazen, eta gu ere baginen, ginenak ginela ez baginakien ere. Herria gauza guti zen jendeentzat: ezagutzen zituzten ingurumen herriak, ez gehiago. Ez gutiago: haien bizitzea hots, sortzetik hiltzeraino. Izarren harat-hunaten berririk ez bide zuten, eta arima herratuak zebiltzan tokietan ez zuten zangorik sartzen. Inorantzia gorrienean bizi ginen, eta han-hara jainkoak daki noren kontra gudukatzena igorri nahi gintuztelarik, ez genuen ulertzen; Ameriketara ihes egin nahiago genuen. Eskolak irakatsiko zigun, asteko zazpi egunen eta frantses departamenduetako hiri nagusien izenekin batean, desertore izatearen itsusia, Patriarentzat hiltzearen ederra. Eta, nola ez, orthographia.

Ordukotz jauregi hau —Euskal Herrian norbait eta zerbait zirenen eskolexea deitu baitu norbaitek, barka biezat galde hau: hartan ibiligabeak inor, ez deus, ez ote ziren?— hestaraztekotan ziren etsaiak, etsaitzat baitzeuzkan orduan errepublikanoak, “Eskualduna”, Larresoroko Seminarioari hoinbeste zor zion kasetak. Galdez nago, aitzina jarraiki balitz, zer segida ukan zuketen ikasketen denboran hor egon euskal letradunek. Zerrenda gogoratzean, ikara batek hartzen nau: Harriet utz dezagun, Laphitze eta Lapeire heldu dira, ondotik Duvoisin eta Elizanburu, hurbilago, jaun eta nagusi, Hiriart-Urruti, Barbier eta Etxepare, nola ez aipa bestalde, Adema, Saint Pierre, Oxobi... Horiek oro, mutiko zirelarik hor egonak dira. Zein ikastetxek hoinbeste izen lerroka ditzake? Hasten betiko trufaria Balzac edo Proust-en zenbait obra besapean daukala: “*Horiek dira egiaz zuen urrezko lumak, miraz haukatenak, ala irri egiteko diok?*” Muturreko bat eman baniezazio nik arrapostu gisa?

Zertarako ordean? Ahantziak ditugu. Harri horien azpian ehortzirik dauntza, ondokorik kasik utzi gabe; non ez diren haietan sartzen, euskal herriaren otoitzez askatzea amestu duen olerkari paregabea, eta Uztaritzeko apez managaitz hura, bizi guztian mendi eta mendeen gainetik zubi egin beharrez higitu dena, herria herritar atxeki nahiz, itotzen gintuen uholdearen azpian kontrakarreko lan etsigarrietan.

Aitor dut. Etxe hau eraikia izan zen landa honetakoa sendi dut neure burua, desgaraikeria deskarata bada ere ene gisako zenbaiten gustuko.

Seminarioa bigarren eta azken aldikotz gobernamenduak bortxaz beretu zuenetik, zazpi urte iragan ziren denak akort jarri zituen gerlaren hasteko. Zer gogoeta zerabilen Manex gereziatarak, 40 urte, bost haurren aitak, 1915.eko uztailaren 12an, tiro bat ukaraiari, obus puska bat izterrean, etsaiek hiltzera edo berdin hiltzat utzi ondoan, herrestaka frantses lerroetara buruz itzultzen zelarik? Ez zatekeen eskola honetan ibili, ardiatarik bide zen hura, ordena eta obediencia azpiko tokitik preziatzen ohi-tua. Etxe honek zaindu zuen munduan sortua, gerlatik jitean bestelakatua zatekeen: gizon berri bat mende berri batetan, azken tenorea heldu herri zahar honentzat.

Pirka-pirka joaten ari zaizkigu begien aitzinean, Arana (eta Galileo bera ere) baino lehenagoko Euskal Herri honen azken hondarkinak, euskaldungoa ere berekin betikotz daramatela. Horrengatik, pagano nahasmenduzalea naizen euskaldun berantiar kasikoindú hau, errespetuz nago hemen harri abandonatu horien otoitz isilaren entzuten.

HAIZEAREN ESKUETAN...

Haizearen eskuetan zeuden,
Esperantza nahian, nere malko hurtuak
Udazken ekiak dakarren loreak
Ekarri dit promes, berriro ere amets
Desesperatu gabe, hegal kolpe batean,
Haizeak darama sentipena, nere bizitza...

Etorri da negu latza, elur xuri jauntzia
Gauak nabari dira, ibai luzeetan barna
Nere barne zulo zulozik datorren oihuak
Dei egiten du lurrezko maitasunari
Eztia zait amodioa, badaukat itxaropena
Harkaitzetan, soinua bezala.
Bi lore, zure ezpain ertzetatik hazten dira
Ez dira zimelduko, ura emango diet bizitzeko
Nere bihotza, ez da lehortuko
Zure abotza du entzungo
Zure abotza dut entzungo

Amodiorik gabekoa, oi itsas nabarra
Iguski epel ondoren, nere gorputz hostua
Arnasa itoen indarrean gaindi...
Aska nere gogoa!

Begira egiezu, itsas uhain horiei
Lerden eta ixilik doatzi
Gure gorputzeko euriaz bustirik
Euri belarraz, harkaitzen izertiaz.

Egunero gehiago, beretzen dizkit itsasoak
Ixuri ditudan intziri eta negarrak
Negu hotzak ihes egiten dit eta,
Zuhaitzen fruitutzeetan, zoriontsuago
izanen naiz.
Agian hego-haizeak ekarriko dit,
Uhain gainetatik, kresal usain sendo bat
Agian, etorkizunaren indarra,
Nere behatz gogortuetan daukat.

Alaba maitea, zu neska sortu zara. Jaiotzean, mutikoez bezala hezur haragiak jantzi dituzu zure burrasoen amets ederrena gorpuzteko. Amarengandik jalgi eta, labe gorri bat piztu zaizu bularretan, hontan airea lantzen baituzu irets eta botaka etengabeki, iraganari gero bat emanaz arnas hartze bakoitzean. Gero, begiak ireki zaizkizunean mundu batez jabetu zara bainan oso ausarta izan beharko duzu zeure mundu hortako gain azpiak, alderdi guziaz miazteko. Horregatik zara beso, esku eta zangoekin agertu, xendrak oro kurriztekoak baitira, gauza den denak hunkigai zero honen pean. Denborarekin leguna eta zaila berexi dituzu, baita ere idorra bustitik, halaber hotza berotik. Aratsalde euritsu amaigabe ilun batez, orroitzapen sortzaile den zomorroaren biziaz ohartu zara, zure buruminetan kokaturik daukazulako eta zutarik hartzen baitu jatekoa. Orduetik hara, zorigaitza eta zoriona, damua eta itxaroa, zutitzea eta erortzea ezagutu dituzu. Amentsa, gauza guziz bitxia eta nekez azter daitekeena, amentsa ere hazi duzu harek zutaz eta zutarretaz loa bete dizulakoan. Horiek denak barneratu eta, giza bihotzarekin buruz buru egin duzu. Gorputza mugakorra da hein batean, axaletik noski, zeren haur ontziaren gau isila eta haragi zainen lanitsuak neurtu ezinak baitira. Giza-izpiritua ere izarkor litzateke bilatuz geroz, bainan giza-bihotza ezin daiteke neurt; zertan sarraraz nahi zenuke? Odola zabaltzen duen haragi puska hortan? Zure egitate onetan? Bainan orduan zer egin zure itzaletaz? Bizi osoan giza-bihotza topatu duzu bidean; zure baitatik jalgitako sendimen basa eta itsuetan edo berdin "bestearen" gorroto, maitasun eta eskastea.

Horiek oro ukanki; zuk eme izanik, beste ondazun zerbait badaukazu zeure barrenean. Jaiotzean xori arraultzea bazenuen bularretan kokaturik. Hats hartzearen medioz, arnasaren labe gorrian emeki emeki xitatu da, ondoan xori ttipi bat sortu zaizula papoan. Horregatik, ume koskorra zinenean eta astakerietan zambilzelarik xori buru deitzen zintudan. Xorikume horrek emaiten baitie xoxokeri poxi bat neskato gazteei. Egun, xori hortaz mintzo natzaizu ezen ohartu bait naiz haren biziaz jabetzekotan zaudela. Bada urte bat iadanik hona hara ibiltzen ikusten zaitudala, horri karrakatzen, hari lotzen larrua berritu nahi bazenu bezala. Ez zaitela izi alaba, gertatu behar diren gauzak biziko dituzu hemendik hara, xorikumea lumatzen hasia baita. Zure adineko nesketan guziz iratzaririk dago xoria eta eztarrian mokoa luzatzen dizue; horren ondorioz zaretela kantuz aritzen udaberriko goizetan; horregatik ere, haurtzaroko kontuak baztertuz zabilzate, irri berriak eta ahapetik aitorzen diren ele ezkutuak estrenatu beharrean.

Alabatxo, zure barreneko segetuaren gorde nahian, ilun eta hetsirik etxe guzian ibilki ikusten zaitudanean, nire gaztaroaz gogoratzen naiz amul-tsuki. Ni ere, berdin nenbilen, nire bularretako xoria amaren galdeetatik zaindu nahiz. Nire baitan ere hegala zabaldu zizkidan xoriak, hegal luma finak, tinko orraztuak; bi ttunttur jalgi zitzaizkidan goiz batez xorikume hegoen ezaugarri, axaletik goxo goxoak, muturretik xorrotxak. Bainan hegala luzatu nahian dagoelarik, bere azken hatsetan daukazu xoria, toki eskasez hilen baita.

Eta gau batez, haren odol beroa galduko duzu zure baitatik, sabel behe guzia bustiko dizu azken inharrosaldietan. Orduetik hara zeure bizi propioa biziko duzu.

**LEHENGO "AMERIKANO" BAT
KALIFORNIATIK...**

Ene ustez, Ameriketarat joaiten diren langilen artian, Euskalduna da nausi olerkiak hantik igortzeko sorleku maitagarriat. Bertsu gehienak, XIX garren mendekoak dira, edo 1914eko gerlaren aintzinekoak, eta frangotan aipatzen dauzkigute artzain zombaiten bihotz minak. Ez da hortaz harritu behar, zeren eta gizagaizoak bakarrik egoiten baitziren, mendi zoko batian, Jinkoak daki zombat urte. Bixtan da, beraz, gogoia ilun zutela! Bainan, olerki huntan bederen, badugu irri egingarri zati batzu, bereziki gure Euskaldunak kondatzen dielarik bere pidaiaeren gertakariak. Ordian, ikasten ahal dugu, bestiak beste:

1) Lehengo itsas-untziak, ardura galtzen zirela sekulako galernak bilduz geroz... arrainek ere behar zutela egin baskari! Beraz, lotsaren gudukatzeo: "Hil artio bizi!" edo hobeki: "Hil artio irri!"

2) La Habana-ren jende beltzekin, gure Euskaldunak nola egin zitien ezin ahantzizko ezagutzak, bere bonetarekin burian bazter guziak harrotuz!

3) Mexiko-n aldiz, zoin luze iduri zakon denbora. Bainan azkenian nola joan zen, egiazko adixkide bati esker, San-Franzizko-rat eta hantik Kaliforniako mendietarat.

Huna beraz Amerikatik igorria den kantu xahar hori.

I

Kantu berriak ederki
Ezar nitzazke banaki,
Hok diren baino hobeki.
Halarik ere/sei zazpi pertsu/emanen ditut oneski.
Egiak dire segurki,
Nahituenak sinetsi
Nahi ez tuenak utzi.

II

Aitarena Kreatura,
Amak emana mundura,
Aspaldi zen egun hura.
Aitama onak/hil zitzauzkitan/haur nintzalarik segurra .
Jin nintzan adimendura,
Lurreko bizi modura,
Badut zombait arrangura.

III

Sortu naiz Euskal Herrian,
Ta hazi toki berian,
Oi, leku maitagarrian!
Oren ederrak/ereman ditut/gazte lagunen erdian .
Orai, guzien burian,
Artzain naiz Kalifornian,
Bakarrik, bortu gainian.

IV

Izatu naiz Espainian,
Ez bakarrik barrenian,
Abantxu hiri nausian,
Iruñen eta/Donostian bai/gero Bilboko hirian,
Hantik biaramunian,
Santandereko hegian,
Han sartu nintzan untzian.

V

Pasatu dut itsasoa,
Trago Atlantikakoa,
Leze bixta gabekoa.
Atseginekin/ezarri nuen/leior gainean zangoa,
Nahiz ez nintzan gurdoa,
Han emaiteko kaskoa,
Arrainen asetzekoa!

VI

La Habanako hirian,
Izan naiz egun batian,
Bonet txar-txar bat burian,
Andre beltz heiek/zalapartaka/ihes ene aitzinian,
Zuriak irriz aldian!
Ahalgeturik ordian,
Itzuli nintzan bidian.

VII

Gero, hantik petik gora,
Abiatu itsasora,
Joaiteko Mexikora.
Biziki luze/iduritu zait/han eman dutan denbora.
Jin zitzerautan gogora
Sartzera San-Franzizkora,
Euskaldun maiten ondora.

VIII

Nahiz burua xapeldun
Zangoak ere botindun,
Moltsa ez nuen dirudun.
Kalifornian/sartua bainaiz/eskerrak zuri Erramun!
Zu zirelakotz Euskaldun,
Beharrarentzat bihotzdun,
Huna ordainak nun tutzun.

IX

Hau duket azken pertsua,
Iluna dut urrandua,
Artaldia urrundua,
Mendi gainetik/han ehausika/koiota mila debrua!
Gau on, Erramun gaizoa,
Nola baituzu gustua,
Kirrinka zazu soinua.

FINISH

HAZPARNEKO MENDIAGUE FAMILIATIK

Piarres Dunypetre.

Azkenian beraz, gure "Amerikanoa" bilakatzeko da artzain, anitz Euskaldun egiten zuten bezala. Bakarrik lotzen da lanari, beldurrik gabe, "Far-West"-eko mendi eta leize izigarrietan. Ene ustez, oraiko "Western" filma horieri esker, jakiten ahal ginuke zer izan behar zen hangö Euskaldunen bizia, diela ehun urte.

Hemen ditugun bertsuetan ere, ikusten da zertan den gure artzaina, iluna zabaltzen delarik, artaldia urrundia izanik, eta Kaliforniako otsoak edo "Koiotak" agertzen direlarik orroaz gose gaixtoarekin. Bainan, kinka tzar hortan, zer ote du gogoan Euskaldun gazte hori? Jinkoa? Aita eta ama? Herrian egona den andregaia?...

Etzauku hetaz hitzik erraiten! Aipatzen du bakarrik orroitzapen bat, bere bihotzian gorderik dagona. Orroitzapen ttipi txar bat, bainan halere xoragarria: **Erramun!**... Uste gabian Mexiko-n ezagutu zien adixkide zintzoa, hiri nausi hortan arrunt galdia zoalarik arrotzez edo etsaiez inguratia! Erramun bihotz ona, aro txarraren ondotik iruzki goxo bat ateratzen den bezalakoa! Erramun mutiko gisakoa, Jinkoak daki inuntik Ameriketarat etorria, eta tenore huntan, oherat joan gabe, beharbada kantuz ari baita ezteki bere gitarrarekin eskian.

Zorigaitz izigarrietan ibili direnak bezik ez dute kausituko, behar litaken bezala, zoin hunkigarriak diren azken gogoeta labor horiek. Sinetsia edo fediarren gainetik, hemen ikasten ahal ginuke nolakoa den egiazko jandetasuna, bai eta zer den "gizonki" artzia, Euskaldunen artian bederen.

DI MACCIO BISIONALARIA

Paris-en, Râ galerian, ekainetik uztaila arte, ikus zitezkeen Di Maccio margolari gaztearen obra ezaugarrienak.

1948an sortua, aita italiar eta ama espainol batzuegandik, hamasei urtetan sartzen da Paris-ko Ederti Akademian; baina laster erabakitzen du erakasle izatea eta prestatzen Arte Plastikoetan sartzeko konkurtsoa.

Morfo-psikologiaren tesis bat presentatzen du eta azkenean 1978an erakaslegoa uzten du pinturari emateko bere denbora guztia.

Di Maccio-k Europako Bepizkundeko artistek ideki zituzten bideak segi eta zabaltzen ditu, hurbilago erromantikoek, surrealisten (Dali batek adibidez) segitu zituzten bezala; maisu dauzka Vinci, Bosch, Dürer, Dali, e. a., gaurko zientzia-fikzioezko marrazkilari handiak ahaztu gabe.

Mundu arrotz eta ezagun baten kreatora:

Râ galeriako buruzagia den Hervé Sérane-k dio, Di Maccio-ren obra ez daitekela zientzia-fikzioezkoetan sar (halere bere lehenbiziko obretan ikus dezakegu influentzi hortarik zerbait); beretzat Di Maccio-ren obra bisionalari batena da, geroko mundu baten deskribapen soiletik baino hurrunago joan nahi duelako: *"entsetzen naiz"*, esaten du margolariak berak, *"asmutzen ditudan pertsonaiak ez kateatzen denbora edo espazio ezaugarri batzuetan, gaur berezi baten barrenean muga ditzaketen egunero errealitateko elementu batzuk ez daitezen sar"*.

Helburu hori lortzeko bere pertsonaiei ez die arroparik ezartzen, eta aintzetan, airean dabilzala erakusten ditu; halaber, ikus daitezkeen arkitekturazko elementuak ez dira denbora batekoak, garai askotako sintesi batzuk baizik. Beste aldetik, gizaki guztiak ilerik, begirik gabe, iduriz robotizatuak daude. Di Maccio berak argi gaitzake hitz hauekin *"bizia eta hiltzearen mugetan daude, harriz bihurtuak balira bezala eta beren begiradek gure oroimenari so egiten diote"* begiak, iluntasunez, hutstasunez besteak dituzte, baina halere, eta segur horregatik, izugarritzko ekspresio sakona daukate, margolariak dioten bezala *"begirada baten ekspresioa ez baitago bakarrik begi borobilean baizik eta gehiago betazal, bekain eta zimurren formetan"*.

Bisionalarien obretan ohi den bezala, Di Maccio-k asmatzen dituen pertsonaiak, ezagutzen ditugun denboretatik kanpo dabilza; berak nahi lituzke denborarik gabe, bizkitartean, aitortzen du *"zibilizazio eta nortasun bat ematea behartua naiz"*.

Ikusi dugu, zibilizazio imaginario horren lekua ez dagoela bakarrik gero urrun batean. Bixtan da, batek irakurtzen du margo bakoitza bere psikologiarekin, baina, dudarik gabe, hemen, margolariak ez du nahi izan arrunt gero urrun eta ezezagun batera bakarrik eraman ikuslea. Alde batetik hor ditugu, keinu batzuk bezala, han hemenka ateratzen diren larru zimur eta zartatuzko pertsonai zahar-zaharrak eta beste aldetik, bere azken margoetan ikus daitezkeen elementu berriak. Azken margo hauetan, indar gehiago, originaltasun eta ere atsekabe gehiago suma dezakegu; pertsonaiak, batzuetan, espazio iluneko indar ezezagun batzuen aztaparretatik ezin libratuz ikusten ditugu.

Nahi ta ez, halako hatsekabe bat sortarazten dute. Iduri baitu batzuetan formaz aldatzen ari direla, kosmosak jaten, itotzen dituela, pintoreak, margoan diren toki libre guztiak bete baititu ere, bere imaginariotik ateratzen zaizkion forma bitxiak. Forma hau oso bereziak dira eta denbora berean halako ahidetasun bat atxematzen diegu, nonbait ikusiak bagenitu bezala xuxen non jakin gabe... Gizaki edo abereen gorputzen barrenean? Gure itzulian lurrean edo airean dabilzan mamutzetan? Landareetan? Harrietan?

Dirudienez margolariak sekulako nahasketa egin du mundu guzti horien artean gure imaginarioa, gure subkondizientzia hobekiago jotzeko. Ez baitakigu xuxen, gizaki bitxi horiek eta mundu ilun horiek gero ezezagun, orain beldurgarri edo lehen urrun batzuetatik keinu egiten diguten...

Teknika miragarri bat:

Teknikaren aldetik, Di Maccio-ren margoak ikusgarriak dira. Ezin hobeki ezagutzen ditu perspektiba eta anatomia. Hor ere gaurko pintore bisionalari gazteek bezala. Bepizkundeko maisu handien tekniketara itzultzen da: *"uste dut"* dio *"beriz guregana ditzakegula Bepizkundeko maisu zaharren teknikak gaurko gogoetak adierazteko"*.

Beste puntu biziki interesantea: noiztenka margo zolan edo aintzin-aintzinean, airean dabilzan puska xuriak. Puska horiek inpresio berezi bat sortarazten dute, ilusio optiko bat; badirudi ukitu behar direla, koadrotik ateraiak direla eta esku bete har daitezkeela. Di Maccio-ren iritziz puska zuri horiek funtzio frango badauzkate: alde batetik margoa bukatua delarik ekilibrio bat, mugimendu bat ematea, gero, erakustea pisugabeko mundu batean gaudela eta bereziki margoari sakontasun bat ematea hirugarren dimensio bat ekarri.

"Libération" egunkariko berrikerari batek zioen bezala (Liberation 1983-ko ekainaren 17an): *"(Di Maccio-ren teknika) ez da funtskabekoa baizik eta imaginarioa pizarazteko tresna izugarri bat"*.

Di Maccio, izen bat, segur, beriz entzunen dena...

MAIATZA HELDU DENIAN

Lehengo artzaineri...
eta Goiherri garbietan laketzen direnei.
P.H.

Maiatza heldu denian,
Bero baita iruzkian,
Ardiak dira pentzian,
Auserki janez, asian,
Etzanik ur bazterrian,
Lokarturik itzalian,
Amentsak oro mendian!
Bana zer dugu haizian?

Haizia da huxtuz ari!
Mendiz-mendi, herriari
Ekartzen du frango berri:
Ukanen dugula sarri,
Osto, lili, belar, xori,
Esker mila Jinkoari.
Bana, hegoak ekarri,
Zer ote da soinu hori?

Arramantza, urrunetik,
Jalgitzen da zelaiatik.
Iduri luke jadanik,
Ehun ahotz erhoturik
Ukaldika direlarik...
Ez baitugu galarrotzik
Espos zahar baten gatik,
Artalde bat da segurrik!

Ardiak dira urbiltzen,
Sasu hegitik agertzen,
Bide guzia betetzen,
Maldaren gainerat heltzen,
Hantik arrabotsa sortzen,
Oiharzunak irartzartzen,
Gure karrikan hedatzen,
Jende batzu bilarazten

Artaldia joaredun,
Jiten zauku, **bulun-bulun!**
Badira naski berrehun
Manex, ta beraz Euskaldun,
Ile gozó ta esnedun,
Azkar, ahul tzar edo hun,
Artzainarentzat untasun,
Holakorik ez da nihun!

Heldu dira, lerro-lerro,
Jabetuz bazterrak oro,
Aintzinian, lehen marro,
Ardi, axuri, zikiro,
Atzar, antxu, harro-harro,
Koska, putar, eta gero
Hunat oihu, harat orro,
Kaka mehe, putza bero!

Joariak errepikan,
Uztaietikan dilindan,
Eskuin **dilin**, ezker **dalan**,
Karrankaz edo firrindan,
Sekulako fandangoan!
Nafarroko herrietan,
Artaldia da bidian,
Egun hor eta bihar han.

Ederrena: marro gaitza,
Bizkar zabal, ile latza,
Begi gaixto, mutur beltza,
Adar gogor ta zorrotza,
Joare lodi: zer bertza!
Izigarriko azantza,
So direnak ezin mintza,
Badu hunek azken hitza!

Zakurrak, lanari lotuz,
Ehausika ta kexatuz,
Nausiak ontsa manatuz,
Ardi galdiak xekatuz,
Axuri zonbait haizatzuz
Bide xuxenari buruz,
Mihi busti bat hedatuz,
Nihun ezin errexitzuz!

Astoa, ttalakarekin,
Tarrapatan dabil arin.
Kakoletan badu berdin:
Zaku, zorro, saski, dupin,
Artzainaren tresnarekin.
Arri, arri!... gaizo Martin,
Atzo harturik atsegin,
Behar duk orai leherrin!

Artzainak, zangoz ernia,
Orotan badu begia,
Eskian makil handia,
Lepoan inguratia
Axuri sortu berria,
Eta lagunduz ardia,
Balinbada nekatia,
Hain gora baita mendia.

Maiatzaren lehenian,
Goitiago joaitian,
Utzi dute beherian,
Ardi usaina lohian,
Ilakina laparrian,
Uli gaixtoa sasian,
Suntsituz, bihurgunlan,
Bidexkaren errautsian...

Piarres Héguitoa.

EZKARGI HILTZALEI ZUZENDU MANIFESTOA

Elizetan, meza bururatu eta ezkargien hiltzeko badira tresna egokiak, burdinezkoak. Orduan jainkoaren etxe bizia iluntzen da, hiltzen bezala. Bere-terrak garantsi handia dauka lan hortan. Zergatik hori aipatu? Pentsatzen dut euskaldunek fedearen ritoei lotu parabolak dituztela hobekien ulertzen. Sarrera ederra manifesto baten hasteko.

Euskal herri saindu honetan, elizaren menpeko manera berdinak hartu dituzte buru on batzuek argiak gordetzeko. Aurki ditzazkegu hamabost bat pertsona kultura mailean guzien gostuen berenen arabera finkatzeko. Gizon kato-matxo horiek euskaltasunaren azken harriak izan nahi dute. Eta euskal kultura aspergarrian itzaltzen bada haien kulpaz baizik ez da. Hanbat hobe naski...

Tortugen maskorra ematen dute kultur munduaren inguruan, hain hertsiki non inork ez baitezake konpromitu gabe zila. Hori literatur alorrean, musikaren zelaietan eta artegintzan. Duela berrogei ta hamar urte moldatu zituzten normak, eta haietan baratuak dira. Ordea badakite mugimendua berante-kin biltzen, hala nola Jon Mirande luzaz sufri ez zezaketena orain kontzientzia ona ukaiteko airoski eta solas nasaiez errekuperatzen dute. Azkenean eraiki model horietan sartzen ez bazara, kanpoan zaude etsai amorratu bezala kontsideratua...

Ez ditut ezkargi hiltzale horien izenak zerrendatuko, haientzat aski ohoragarri bailitake, eta ez baitute aipatzea merezi. Besoetan dituzten ordulariak betikotz arrestatuak dira. Oligoz betetzen dute mekanismo guzia.

Erraten dute kritikaren beharra badela, kritika laudatzalea bistan dena. Norbaitek senditu dituenak, gaizki edo ongi, azaltzen baditu, diote jeloskor bat dela besterik ez, idazten ez dakiela, euskara sakratua ez duela ontsa menperatzen, etab... Elkarki karamel goxokiz bizkarrak torratzen ari dira, beraien itzulia etorriko deneko, ezkargi hiltzaleak. Ez estona gero, euskal literaturak edo kulturak aurrerapenik ez badu, irakurle eta ikusleek interes gutiago dutela baskoen gauzetan. Kritikak finitzen dituzte "*badute mereximendu*" "*jainkoari eskerrak*" eta "*segi hola hola*" erantsiz. Iduriz eta Jainkoak baduen zerbait ikustekorik gai horietan...

Gora, gora orduan "gure" antzerkigile abangoardiakoak, bertsolari goizegi zenduak, monzontxiki paisoladunak. Gora denak... Sistema osoa horien inguruan altxatua da, kasik ehun urteko kalonde beti gazte denarekin mila parasito daude, apez defrokatuak, dotore euskaldun fededun kasko pelatu tipikoak, beren legitimitatea frantsez diplometan oinarritzen dituzten sasijakintsunak. Gora denak... Zorigaitzez, parasito zikiratzaleen artean gazteagoak eeere aurki daitezke. Zorigaitzez, edo zorionez beren promozioarentzat... Egiatzko paraxutistak.

Negar egitekoa lizateke, zinez, ez bagenitu pizti horiek umoreekin hartzen. Badira bakarrak irriz hil izan direnak, ote da euskaldunen kasua.. Ordea herri honetan ez ditu ironiak gauzak baloratzen, idazlea desbaloratzen baizik. Hemen ixterrak hertsiki, hemen espainak hertsiki...

Itxaro Borda.
1982.

Manifesto honek gogorra iduri du, eta funtsean hala da besteak zion eran. Ez dugu kalitate, sapore gutienaren aterbean gure burua galtzera utzi behar. Negar edo irri egitea bazterturik, has dezagun borroka, ez herriaren askatzerakoa, finean errezena baita, baina izate bakoitzaren askatzerakoa. Ahoak idek ditzagun, pentsatzen duguna agertuz, gibel asmorik gabe. Urak, mendiko xirripak bezain argi izan ditezten. Gorputza mintza bedi, eta ez bakarrik burumina, baita ere haragi ikaraduna!

Nere jokoko kartak mahainean zabalik pausatzen ditut, Hordago erranez. Konpromi guzien kontrakoa naiz; gobernu edo euskal sistemarekilako kolaboratzeekin, aski dela uste dut. Hesten dizkiguten ateak utziko ditugu, eta gelditzen zaizkigun medioekin ariko gara. Alor hortan herriko kaseta eta erre-bistak baliatuko ditugu, oraindik aski irekiak baitaude. Publikotik, irakurleatarik libre egonen gara artegintza xoilaren saila segitzeko. Maitasuna erranen dugu, eta zeruko izar magikoak, eta mendi lainotsuak, eta itsaso marrumatsuak...

Hitzak dakarren barneko musika azkartuko da, arpegieng larru zimurrak argiak markatuko ditu, karriken erdian solasen haria egiago ahainduko da. Espera dezagun, espera. Behar bada balio du, portura iritxi aintzin gure barko ahula hausten ez bada behintzat.

Manifesto honekin bat datozenek behearen firma bezate, bizitzaren enkre briolin bihurriaz.

HELAS

Arima kartzelatuz lurrezko eltzetan
Galdu nintzen solasen bidexka beltzetan
Ixildu nahian bihotzeko mina.
Ibili naiz herrian sarraskiak gordez.
Irria erakutsiz negarraren orde.
Gozatu beharrez ahoko samina.

Ez dut ikusi ura itsasora husten,
Ibaiak bere zilo bekaiztia uzten
Ekiak begiak zizkidan zerratu;
Senditu dut ordea zorion beroa
Indarrez segurtatu azkarren geroa
Ondotik pasatzen nintzen lerratu...

Helas, banintz ibili haien urratsetan
Ez nindaik egonen mendien hatsetan
Beleak asetzen eta bakarrikan,
Hastean alta nuen eskuetan giltza
Baina atea hautsiz debalde gabiltza
Iretsiko dugun saldari harrikan...

Nere barneko mugak moztu ditut denak,
Kendu maitasunak sor zitzazkeen penak,
Jabaldu ikara bizian nuena,
Haragia barnean, harria kanpoan
Aterberikan gabe beha nola doan
Etxea beldurrez errea duena!

Erranen dute berriz naizela zoroa
Ez baitute entzunen hutsaren orroa
Arrazoi dutela sinesten dut araiz,
Inutil banabila arkaitzen artetik
"Bizi naiz" oihukatuz erraien partetik
Ttipiki badakit, baina bizitzen naiz!

1983eko otsailan
Itxaro Borda.

Itxaro Borda
1983.

TXINAKO ITSASOEN...

Txinako itsasoen uhain beroetan,
Beren bela motelak hego haizez hantuz,
Portuak oro hunki nahiz geroetan
Paperrezko untxiak badoatzi kantuz...

Ez dira leihorretan kraskatuz hautsiko,
Ez dute arriskurik bidea galtzeko,
Zeru geldietarik ez dira jautsiko
Segurtamenak hiru sosetan saltzeko...

Galerna azkarrena dute beren alde:
Txinako itsasoen uhain kexatuak
Paperrezko untxien kontraka debalde

Altxatzen dira beti, haguna negarrez,
Ezinean itoak ta mexprexatuak
Izarrerri hildoak zilatu beharrez.

Hamar urte zergatik? *"J'ai dix ans, je sais que c'est pas vrai, mais j'ai dix ans, laissez-moi rêver que j'ai dix ans"* zion modan zen kantu frantses batek. Egia, badu hamar urte déjà euskaraz idazten ari naizela, hiru ehun libera berritan erosi nuen makina herdoildu honen gainean. Nork sinetsiko nau? Nehork. Alta hamar urte badu...

Gainera batzuek "zorigaitzez!" erantsiko didate. Eta nik arrazoi ematen diotet, osoki. Bestela egitea ez da posible, gehienek horrela pentsatzen dutelarik. Utz nezazue nihaurek nere burua eta nere idazketak aipa ditzadan, auzokoek ez baitute lan hori nere ordeztu behar... Hau dutan estakurua da!

Beraz hasi behar naiz, interes handirik gabeko zaharkeriak inharrosten. Nere xedea da "Maiatz" aldizkari zoragarriaren orrialdeetarik nere izena desager ez dadin. Hortakotz bakarrik artikulu luze eta nazkagarri bat kaleratzen dut. Hamar urte badu euskaraz idazten ari naizela. Gaztatan, kasik zaharrene-tarik bat naiz. Atera diren gazteak abiatzen ikusi ditut, batzu kontseilatu. Ez dut urgulu izpirik, nahiago baitut haiek bil ditzaten euskal literaturak banatzen dituen urrezko koroiak, burua aski azkar baitute pizu horren karreatzeko.

Alta ederki hasi nintzen, "Herria" kasetan sainduki eta krixtauki euskal fedea hedatzen. Ez dakit zerk edo nork geldiarazi nauen paradisu-rako bide gozo hortarik. Banaki ere, ez nezake sala. Ai, egon banintz orduko muga eta zedarriz zintzoetan! Nostalgia daukat denbora bero haier gogoa itzulikatzen dutalarik...

Arras gaizki ematen dut "gure" euskara. Horrek ere asko penatzen nau. Noiz ikasiko dut mila aldiz entzun dudana perpaus honen erranahia: "idazten ez dakizularik, hobe ixilik egotea!". Eta ni ezin ixil... Zoritxarrez. Entseatu naiz ez idaztea, baina ez dut sekulan erreusitu. Ez da orduan ez saiatuaren faltaz. Beste zerbait baduket buruan. Bai: idazteak eritasun zoro batean duelarik bere erroa nolaz geldi araz? Itsasoa hustu edo ibaiari ura kendu nahi izatea bezala da. Debaidezkoa... Funtsean euskal herri maite honetan, ez da frantsesez dioten eran gertatzen: *"plus on est de fous, plus on rigole!"*. Rigolatzen dugu, ordea ez zoroen artean...

Beti espero ukan dut hogoi urtetan euskaraz idaztetik geldituko nintzela. Beha, nihaurek ez ditut erabaki ditudanak errespetatzen: nola bizi horrela? Es que, noski, esin da! Pentsatu dut ere, scoop erreklamagarri bat obratzeko munduko itzulua bukatu behar nuela, labanaz zain bat moztuz edo pistola kolpe batez buruhuna zartaraziz. Entseatu naizen bakoitzetan uzkurto naiz, sufrituko nuela, azantza eta odolaren kolorea soportatuko ez nituela asmatuz. Egiaz, gaitzeko minablea naiz. Ah la la...

Itxaro Borda.
1983ko apirilaren 1ean.

HAMAR URTE...

Geroztik atzeman dut idaztetik gelditzeko beste medio bat, baina ez dakit kuraie-rik aski ukamen dutanez honen betetzeko. Hau da: euskal herri maite honetarik lekua hustuko dut, lur borrobileko edozein herrialdeetara partitzeko. Zuentzat bakea, eta neretzat bi sos irabazi beharra! Bat begiztatua dut jadanik, Arnoa nasai dagon hiri zahar hura. Joatekoa naiz, funtsik gabe atakatu eta laidozatu ditudan guzieren umilki barkamendu eskatu ondoan, negar hipaka haien belaur zuzenetan *"handizki damu dut zu ofentsaturik"* oihukatu eta. Zaila izango da, nik uste. Lehenik erregretetan sartzea, bigarrenik nihaurek idatzi artikuluak herriko kasetetan gehiago ez irakurtzea (zuentzat mintzo naiz); ni naiz nere lanen admiratzaile eta irakurle hoberena!

Ororen buru erremediorik hoberena litake, kaseteta eta aldizkari euskaldunen arduradunek nere idazkiak atera ez ditzaten. Badakizue nola eta zenbat errespetatzen ditudan besteek erabaki dituztenak. Autoritatea duenaren aintzinean beti apaltzen naiz. Zinez...

Azkenean utz nezazue nihaurek nere burua arta dezadan; hamar urtez ez naiz hasi nintzanean baino aurreratuagoa. Ai (berriz) ez banintz sekula menturatu luma eskuratzera, ez nuke horrelako finitzeko prolemarik. Asko idazleek hola degite, ez dute nehoiz idazten, eta beraz ez dute erreproxarik jasaiten. Ai (ter) banintz abila. Sare guzietara erori naiz ondarrean.

Hamar urte duela hasi nintzen euskaraz, nik euskara deitzen dutanaz behintzat, idazten. Ez naiz txartu, ez naiz hobetu: beti berdin ahul geratu naiz. Nola jalgiko naiz ateka garatz honetarik? Ez dakit...

Hamar urte: neretzat ez aski, zuentzat soberal

Askok uste dute historiaren aurkikuntzak betikoak direla, egia bera erakusten eta erakasten digutela, geroa prestatzen laguntzen gaituztela... Gizazientzia hortan agertzen dira borrokak, erregeen eskontzak, kultural ekintzak, orobat munduak jasan dituen aldakuntzak. Ez guziak ordea, iturri batzu hautatzen baitira, gaurko mendearentzat errankorre-nak direnak, besteak baztertzen dira...

Arras interesgarria da guretzat jakitea nola bizi ziren gure arbasoak, bai euskal herrian, bai mundu guzian. Osotasun bat moldatzen baitugu lurrekoekin eta galaxiakoeekin. Iragana orainaren itxurakoa egiten saiatzen gara historiazaleok. Iraganean oinarritzen eta justifikatzen ditugu gaur egun gertatzen zaizkigunak. Pundu horren ez onhartzea kaltegarria dago deitzen duten gizazientzia hortan. Halere ez du erran nahi historiari behatzeak penalizatu behar gaituela. Ez.

Historia zer den, eta gertakari iraganaren arrangurak zein diren filosofoek azaldu digute: batzuek alde onak erakutsi dizkigute, besteek alde txarrak, aldeka ikustea komeni balitz bezala. Ez dut nik gauza handirik ulertzen gai horretan, ordea nere aburua emango duket...

KLIO GUZIEN JAINKO...

Klio, frantses, ingles, kastillan, amerikan edo erromano den ber, euskaldun ere dago. Ez dut konprenitzen zergatik jakintsun ospetsu batzuek gure historia ukatzen duten, beren giza-taldearena ukatzen ez badute. Frogatuko dut: euskaldunak duten historiak mintzo badira chauvins eta nationalistes direla agertzen dute. Hori diotelarik ahanzten dukete beraiek beren herriarentzat manera berean aritzen direla. Historia nazioari, estadoari, populu bati lotua da, baitezpada naski. Orduan onhar dezatela bi pizu eta bi neurri ba daudela, nor berari aplikatzeko. Alta badakite ongi erakusten munduko herrialde gehienen historiari ireki behar dugula, begiz eta beharrez. Neri, adibidez, Indiako historia gustatzen zait, ez du horrek erran nahi Delhiko nazionalista bat naizenik... Gogoak argitzeko beste frogak emanen dit. 1917ez geroztik Russia zaharra sozialista bihurtu da, haren historiak ere koloratze berdina hartu du. Mendebaleko jakintsunek Moskuko ikerlarien ondorioak mesfidantza askorekin hartzen dituzte. Baitakite han egiten den politikak historia eta orohar kultura mugatzen dituela. Nik jakin nahi nuke Sobietar Batasunean nola ikusten duten gure herrialde aintzintatuen historia?

Zergatik moztura edo dikotomia hori gertatzen da? Egiaz, bi historia molde aurki ditzazkegu mundu zabalean, gehiago ere nere ustez: zapaltzalearena eta zapalduarena, aberatsena eta pobreena, gizonarena eta emaztearena, kapitalixtena eta komunixtena... Dependitzen du zu zein aldetan jartzen zaren, eta bat edo bestea hautatuko duzu. Historia hautu politikoa bat da, guk eta jakintsunek nahi ala ez, kontzientziak ala kontzientziarik gabe. Hori gure baitan argitu behar dugu, historia egitekotan; ordea, bakoitzak bere alderdia hautatzeak ez du besteeri elkor garenik erakutsi nahi. Bestea ere onhartu behar dugu, gurearen neurrian, dituen huts eta kalitate guzietan. "Absolu" delakoan historiarik ez dago...

EGIA ETA BEGIAK...

Bakarren ustez historiak gertakari baten egia historikoa azaltzen du. Guzien indarrak haren bilatzeko juntatzen dituzte, egi bat balitz bezala. Begia ikusteko arnes premiatsua dugun gizon-emazte hauekin, egia ez da mundu hontakoa. Eta bakoitzak ekintzak eta gertakariak bere bi begiekin preziatzen ditu manera berezi batean; auzoak berdin difrenki, izan dadin laborari, langile, edo estado baten zuzendari, frantses, aleman, patagoniar edo euskaldun.

Dokumentuak hor ditugula egia frogatzeko, baik: texto administratiboak, latinez harrietan zizelkatuak, ordinatorreetan pasatu fitxa zilatuak... Baietz Baina gizonak bere ekintzetarik bere izatea kendurik ere, egiten dituen gauza orotan beretik zerbait uzten du, eta bere begiez ikusi edo bere beharrez entzun dituenak agertzen ditu. Dokumentuen arabera, abisuak nasaiak izanagatik, ez dugu garai batentzat egi orokor bat karrikatzen ahal, ez bait litake egi zatikatu eta faltsu bat baizik. Berdinki gertakari beraren bi edo hiru aldeak erakutsi ondoan erdiko bidea hautatzeak ez du egia historikoa egiten... Halatan, ez da posible historia bat moldatzea egiaren inguruan, edo egia hurbiltzeko xedarekin. Ez da utopia, baizik eta kontrasentsu bat...

Parisen, Madrilan edo Txikagon derabilten "objectivité scientifique" hura jendeen begietara botatzen duten errautsa dela erran nezake. Lehenik XXgarren mendeko bilakuntzak gehiegi balorizatzen dituzte. Uste dute jakintsunek, 1983 urtean egiten dituzten sintsesiak goren mailakoak direla, jakitateak bere helburuak beteak dituela, orain arteko idazki guziak saiapen batzu bakarrik ez direla kontsideratuz. Bigarrenik, objektibitate edo egia hori izan da, gizon-talde manatzale batzuen subjektibitate edo norberaren normalizatua, teoriatan altxatua eta jende gehienari bortxaz irestera emana dena. Ez bekidala nehor objektibitate hortaz mintza, sudurrera irri eginen baitiot.

Alor honetan aipa dezagun Pariseko "Annales"-en eskola Febvre eta Marc Blochek sortua, Duby, Le Goff, Le Roy Ladurie, Braudel, Ferro... eta delakoekin. Nahi dute gogamenaren historia aztertu. Deragun arras interesgarriak agertu direla haien bilakuntzak. Erregeen aferak eta borroken harat honaratak baztertu ondoan historian zehar nola hil garen, nolako beldurrak genituen, nola maitatzen genuen, nola begiztatu genuen diruaren arazoa estudiatu dituzte. Baina, historia berri horrek (1929) erakusten du XXgarren mendeko gizonak ez dezakela bere erresponsabilitate edo gainhartzerik asma politika mailan behintzat, gehienetan eta goihen klase politikoetan ahalgegarri baita abisu politiko finkatu batekin ibiltzea karraketan. Gogamenaren edo mentalitateen historia egitean ere eta haren bitartez ingurumeneko ideologia politikoa agertzen delakoan. Ordea jendeak ederki enganaturik gertatzen dira, eta liburuak erreklama askorekin saltzen dituzte. Ondarrean frogatu nahi digute bizitzen duten mendean gogamenak hobetze bat edo progresoa segitzen duela, eta iragan garai guziak orainaren zerbitzurako baizik ez zirela kunplitu. Bakoitzak, halatan, bere pentsamena lasai bero batean uzten du. "Annales"-ekoen historiak lokarazten gaitu, beharrezkoa izan arren, gauzak eta gaiak gehiegi berezten baititu sekula haien arteko loturak aztertu gabe. Sail hortan XIX garren mendeko historia zintzoagoa zen...

HISTORIA ETA GIZONA...

Historiazale batek ez du historiarik egiten berezko interesik ez badauka. Adibidez, historia ikasten hasten da etxean edo eskola ttikietan hartu orroitzapen urrundu batzuegatik; bakoitzak berea bilatzen du Klioren larretan, eta nahikunde hori hain da personala non uste batugu unibertsalak garelakoan, gure motibuak ere unibertsalak direla. Hemen lotzen eta batzen dira mikrokosmoa eta makrokosmoa.

Orain frantses erresistentziaren prolema aipatu dut, erakusteko historia zenbat josia den frantsesek duten gogo barneko mitologiari. Azken gerlako gertakari hori agertzen dugularik ohartzen gara, frantses gobernatzaileen legitimitatea, ezkerretik eskunera, ezen politika egiten dutenetan nor ez da Vercorseko sasietan harmak eskuan gorde aleman zapaltzaleri oldartzeko, haien zuzentasun borroka hortan datzala. Jean Moulin bakar batek milioika ziren kolaboratzaileak salbatu ditu oraingo frantses historian zehar. Egun batez, asma dezakegu ahala, gobernua aldatuko delarik, berdin kolaboratu dutenak gorai patuko dira. Historia haizearen norantza erakusten duen burdin peza hura bezala da: aireak nondik buha, burua harat itzul...

Ordea, oztopo guzien gatik historia egin behar da; orobat eskoletan erakatea ez garantzitsuena, eta mendeetan zehar gaizki erakutsia izan bada ez da erakasten ez zakitelako, baina hala erakats zadin nahi zutelako. Geroni daiteke joko hortan kontraka sartzea hautatzea.

Itxaro Borda.
1983.

Ez ditu historiak herrak, gerlak, nazionalismoak eta mugak sortzen, baizik eta guzieri; oraingoeri, errankortasun bat ematen, edo justifikatzen. Ez gaitu ere, batzuek dioten bezala, gure geroaren moldatzen eta eraikitzen laguntzen. Gaurkoa iraganak finkatzen digu bai munduan eta bai euskal herrian. Orobat ez dezagun gehiegi estima guti dezakeen gizazientzia hau.

Orduan, inportanteena daiteke, historia egun ikusten dugun eran agertzea, jakinean ikas dezagun ez dela Egia saildu eta hunkiezin bat. Gure ondotik etorriko direnek berdinki bestela hurbilduko dutelakoan, guk hain ederki altxatu genuen Egi hura. Eta hori onhartzean, historiako zientzietan sineste egunerokoa ukan behar dugu. Ondarrean gertakariak, garaiak eta gizon-emazteak elgarri konparatuz ttikiago eta gizago agertzen zaizkigu... Hau ere gogoan hartuz: nehor ez da, ezer ez da eternala denik, eta gizaldi bakoitzak bere aintzinekoen urrats berak bertetzen ditu, berritasuna nahian dabilalarik.

Neri iduritzen zait ez daitekeela historiarik egin, bakarrik gure garaiean bizi gaitekeela osoki, giza xoilaren zorion eta makurrekin, arbasoen orroitzapenak gogoan eta ukanen dugun sendiari orroitzapen horiek helarazteko xede umilarekin. Beharbada hau da gure munduan izatearen arrazoin bakuna. Ordea, historiazaleak konpromis askotan ibili behar du, bere zientzia onestki erakasten aritzeko. Ontsa laiteke goi-mailako ikastetxeetako erakasleek historiak duten ikuspondua agertzen baligute, gaia aztertzen hasi baino lehen, heian haientzat giza-taldea aurrerapenari buruz doan, edo lurra borrobil den bezala, historia ere borrobilki badabilan. Zoritarrez guziak delako absolu hartan ari dira, eskuratu duten jakitatea, diploma ohoragarrietan oinharrituz, eternala baililtzan...

Alor honetan ere hautu bat egitea hobe da; eta bakoitzak egia, bizi duen edo arbasoek bizi izan duten gertakaria bere begiekin ikusten eta jukatzen duenaz geroz, zergatik ez onhar historia norberak (idazle edo herrialde) eskriba dezan, haren ikusmoldeak berezko balioa baitakar...

GAXUXA KAKOLIREN OBRAZ (II)

Hitzeman nizuen bezala, hona Gaxuxa Kakoliren beste obra batzu. "Maiatz"en hirugarren zenbakian jadanik haren bizitzaren harat honaratak agertu nizkizuen. Oragarreko Sortekobordan sortu zela Frantses Iraultza ospetsua hasi zen urtean, eta nola ehun eta bi urtetan bere azken hats oparoa Jabeari itzuli zion.

Duen arra-alabatxiak prestatu kaier zahar horitu hura eskuetan daukat, errautsez betea, eta saguxarrek erdikal janak dituzten orrialdeekin. Egun batez zueri erakutsi beharrean aurkituko naiteke. Euskal Erakustokikoeri emanen diotet, dokumendu bakun hortaz arta har dezaten. Uste dut harripeko mamua atzeman dutala, eta gure literatura izigarri aberasten ere, gai hori aipatzen duten liburu guziak Gaxuxa Kakoliren arabera berriz moldatuko baitira.

Ixtoria ttiki bat kondatuko dizuet gure Gaxuxa (hala deitzen ahal dugu orain) nolakoa zen errateko: aste bat hil baino lehen Justina Eiherarekin mezara joaten zen, xendrazka oteloreen artetik iraganez, arrosarioa errezatuz eta bospasei pater marmarikatuz ondotik gloria batekin. Bazoatzin beraz, bi bizkar konkortuak beltzez besti xori ororen zorionerako. Gaxuxa eta Justina abiatzen ikustean kartierreko jendeek bazakiten mezako tenorea hurbiltzen ari zela, eta apailatzen hasi behar zutela. Gaur egungo ordulariak bezain zuzenak baitziren gure bi atso kartuak. Hona poema bat heriotzaz:

**hil behar badut hil nadila
nere azken ohaidearen beso
indartsuen erdian,
hil behar badut hilen naiz.**

**eta lurrean zurezko kutxan
zizare gorriak izan bekizkit
maitale
xurgatzale
iresle.**

Baina hil aintzin herriko gizon fresko ainitz lasterka arazi zituen. Gehienetan ez luzarako, ez baitzen sekulan eskondu, nahiz alaba bat ukan zuen Ximun garaztar buhamearen gandik. Non zuen bere usaiako gal lekua zati honetan erakusten digu. Oragarreko sasia ur bat badago Uhane izena duena, eta ibaia pollit horren hegia zuen maitasunerako ohe gozoa:

**ur bazterreko belar lerdenean
nere gorputza freskatzen dute,
sabelak eta bularrak kilikatzen.
eta zure brankako ur berdinak
nere barnea betetzen du,
euri kantaria bezala.
uretik eman didazun bizitza
negarretan begietarik
mateletan jausten zait.**

Tabu guzien atzetik dabil gure Gaxuxa, lau haizetara Donostiatik Oragarrera Arresoko Mikel Arregi poetak kaxkarrak dion bezala. Baina ez gara hortan geldituko. Gaxuxa Kakolik ikasi zuen bizitzaren bortxaz gauza gehiegi erabiliak aurdiki behar zirela usteldu aintzin. Bazuen Petri izeneko ohaide fidel bat kartierrean. Petri hori giltzagilea zen, eta kasik auzo-auzoan bizi. Halatan harremanak errezoak ziren. Poema hunkigarri honetan erakasten digu nola repudiatu zuen Petri gaizo delakoa:

**zure gorputzeko ile beltzak
sabel beheko oihanak
kixkaildu zaizkitzu,
biloak kaskotik erori,
haragia zimurtu
espainak tenteldu
mihia moteldu.**

**edaten duzu, ostatueta zabilta
batzutan lan egiten ere.**

**zure xoria ez da gehiago
kaiolatik ateratzen,
nere xoxoa tristerik dago.**

Hona egintza on bat azkenean: Petri despeditua. Baina Gaxuxa ezin egon maitalerik gabe. Bazuen, bere idazkien arabera emazte bat bere galanteetan galdua. Maritxuk hogoi urte zituen, Gaxuxak berrogoi zituelarik. Erranen duzue gaitzeko adin diferentzia badagola, maitasuna urteak baino azkarra go dela diot nik. Izkirio batetan esplikatzan zuen bere jokaera(!) berezia: "ez dakit zergatik jendeak horrenbeste mintzatzen diren nitaz. Jakin bezate gizon batentzako maitasunak emazte batentzako ba lio duela, amodioa zintzoa den ber. Eta nik Maritxu maite badut haieri zer?". Hona aipatzen dugun lana:

**zurekin Maritxu
putzu ondoetan
eta
lohi ixtiletan
ibili nintzen
eskuz-esku, bekoz-beko
haragi gurietan galdua.**

**zurekin Maritxu
ahalgerik gabe
eta
hunkitasunean
ibili nintzen
munoz-muno, zilo-zilo
izerdi hezeetan hustua.**

zurekin Maritxu...

Ikusten dugu bere maitasunean omere on asko zuela, eta batzutan poema hontan bezala ironia puska bat ere. Bere gorputzeko zati guziak aipatzen eta erabiltzen zituen, atseginerako. Denek badute beren berezko balioa. Segidan poema bitxi bat datorkizue, interesgarria baina nik ez dakit zertako hitz hauek esku ezkerreko erhiari zuzendu dizkion. Heian abil batek ihardespen bat emanen didan...

**ezkerreko bigarren erhiaz
xoxoaren moko horia
bustiarazi nuen
kanta zezan
oraino
eta
bere hegaletan azken zeruraino
airean eraman nindezan.**

Gaxuxak hegaztinak asko maite dituela iduri luke, bere ondokoen arabera xori guzien izenak ezagutzen zituen xixtukatzeko maneratik. Erraten ahal zaizun, omen lurreko lore ororen deitura usainetik beretik, haiek batere ikusi gabe. Miresgarria zen gure emaztea!

Atzeman dutan azken zati honetan erakusten digu Gaxuxak bizitzako egintza eta eginbide xeheak goraiatzeko bazakiela. Dirudienez goizeko lehen pixaldia biziki preziatzen zuen:

**eguzkiari begira
kukurbilaturik
espainetan irri berria
zoin den eder eta bero
goizeko lehen xirripa gardena
azpi artetik jarintzen delarik
lurra bustitzen duelarik
goizeko lehen xirripak.**

Gaxuxa Kakoliren poemagintzaren zutabeak baserrian oinarrituak dira. Ez du sekula hiria azaltzen, ez baitzen nehoiz bere herritik Baionara joan. Batzuek erranen dukete arkaiko bat baizik ez zela, nik ordea arrazoin osoa emanen diotet, bakoitzak bizitzen duen egoera erakusten duela erantsiz.

Ondarrean, aldi batentzat bederen uste dut euskal literaturan dabiltzanak zordun geldituko zaizkidala, Gaxuxa Kakoli baten obra atzeman baitut. Gomendatzen dut gure idazleen lanak aztertzen ari diren jakintsuneri, nik nihaurek ez dezaket gauza handirik egin texto hauen esplikatze. Orain beraz zueri esku euskaltzale lagunak...

Inor ez zitzaion, inoiz, pertsona bat salbu Sherlock Holmesi nagusitu. Pertsona hori Irene Adler izan zen eta inoiz ez zuen Holmesek ahaztu.

Aste batzuz Holmes guti ikusi nuen. Ezkondu nintzen gero Londresko beste toki batera etxek aldatu nintzen. Holmes gure Baker Streeteko geletan gelditu zen. Medikua gisa lanean ari eta ez nintzen joan haren ikustera oso lanpetua bai nintzen.

Gau batean, 1888.eko martxoan, etxera itzuli nintzen. Baker Street aldean bizi zen emakume gaixo baten ikustera ibilita, gure gela zaharraren aurrean pasatu nintzen. Argi bat ageri zen; Holmes gelan zegoen eta ikus nezaken, eskuak bizkar atzean eta burua makurtua. Eta Holmes lanean. Problema bati buruz pentsatzen ari zen. Inoiz ez zitzaion problema bat Holmesi nagusitu. Haren aurkitzeko, ikustera joaitea erabaki nuen.

Holmes suaren ondoan zutik zegoen, sakonki pentsatzen. Ezer ez zuen esan, bakarrik aulki bat eskaini. Beti halaxe izaten zen Holmes problema bati buruz pentsatzen ari zenean. Bainan pozik zegoen nire ikustean. Azkenean paper zati bat hartu zuen. *Ikus hori, Watson, zion. Zer pentsatzen duzu hortaz?*

Papera hartu nion. Ohar bat zen. Zuzenbiderik ez zegoen, urtegunik ez eta firmarik ez.

Gizon batek bisitatuko zaitu gaur gauean, zortzirak laurden gutxitan, zion oharrak. Ez zaitetz harritua egon mozorrota bada. Haren egiazko izena ez dizu esango. Galdera oso garrantzitsuari buruz zuregandik aholkua behar du. Seguru egon behar du.

Misterio bat da benetan, esan nion. Zer esan nahi du horrek, Holmes?

Laister ikusiko dugu, erantzun zion Holmesek, leihotik begiratuz. Karroza bat gure atearen aurrean orduantxe gelditzen da. Karroza eder bat da. Gure bisitazalea handiki bat izan behar du.

(Beranduxeago ate-joka entzun zen).

Aurrera! deitu zuen Holmesek.

Sartutako gizona oso handia zen. Mozorro bat zerman eta haren jantziak atzerrikoak ziruditen.

— *Nire oharra heldu zaizu?* galdetu zion.

— *Bai benetan, erantzun zion Holmesek.*

— *Othoi eseri zaitetz. Gizon hori adiskidea dut, Doktor Watson. Zure oharra ez zen izenpetua. Zure izena eman-go zenidake?*

— *Konde Von Kramm deitu nazakezu, Bohemiakoa naiz. Zuri aholku eskatzera etorria naiz. Bainan inori ez diozu ezer esan behar nire bisitaz. Errege batek horrela desiratzten du. Adiskidearen aurrean libreki mintza naiteke?*

— *Noski, erantzun zion Holmesek. Doktor Watsonek maiz laguntzen nau. Zure Gohentasuna, libreki mintza zaitzetzke.*

Gizona bere aulkitik zutitu zen eta aurpegitik mozorroa urratu zuen.

— *Arrazoi duzu osorik, esan zion ozenki. Bohemiako Erregea naizela nola zenekien?*

— *Arras erreza izan da, erantzun zion Holmesek. Karroza izigarri ederra daukazu, eta bi zaldiak berdin. Gizona aberatsa zara. Handiki bat izan behar duzu.*

— *Bainan gauza horrek ez du argitzen nola zenekien!*

— *Neri aholku galde etorri zintzaidan, jarraitu zion Holmesek. Zure bisita inori ez dudala aipatu behar eta errege batek horrela nahi duela esan duzu.*

— *Oraindik ez dut ikusten nola dakizun...*

— *Bohemiakoa zara. Egunkarietan irakurria nuen Bohemiako Erregea Londresen zagoela orain. Erregea izan behar duzu. Othoi esan, nola lagun diezazuket.*

— *Hauk dira gertatuak, hasi zuen Erregeak. Gutxi gora behera, ba dira bost urte Irene Adler izeneko emakume bat ezagutu nuela. Beharbada haren entzutea duzu?*

— *Nire apuntuak begiratu ditut, dio Holmesek.*

Kartaz beteriko kutxa batera joan zen. Kartetan, ehundaka jendeen apuntuak egoten ziren. Momentu batzua pasatu ondoren karta bat ateratu zuen. *Irene Adler* irakurri zuen. New Jerseyen 1858ean sortu. Kantari. La Scalan eta Varsobian. Orain Londresen bizi.

SHERLOCK HOLMES

Sir Arthur CONAN DOYLE.

Maite Gamarra.
Itzultzailea.

Erregearrantz itzuli zen:
— Orain dela boste urte, Irene Adler Varsobian bizi zen. Han topatu zenuen.
— Bai, esan zion Erregeak.
— Maitemindurik bihurtua zinen eta gutun batzu idatzi zenizkiozun. Orain emakumeak gutunak itzul diezazkizun nahi duzu.
— Bai, bainan nola...
— Ezkontza segetu bat zegoen?
— Ez.
— Lege paperik firmatu duzu?
— Ezer ere ez.
— Orduan ez dago problemarik!
— Bainan gutunak...
— Ez dituzula idatzi esan dezakezu.
— Argazki bat dauka, dio Erregeak.
— Beharbada erosi zuela.
— Bainan biok argazkian gaude.
— O! zion Holmesek, Hau beste gauza da. Argazkia erosi beharko duzu”
— Saiatu nintzen bainan ez du saldu nahi.
— Lapur ezazu, beraz.
— Gizon batzuei bi aldiz pagatu diet lapurtzeko, bainan ezin zuten argazkia aurkitu haren etxean.
Holmesek par egin zuen.
— Arazo bat ba duzu, benetan. Zer egingo du emakumeak argazkiarekin?
— Eskandinabiako Erregeak alaba bat ba du. Harekin ezkonduko naiz. Irene Adlerrek fotografia baliatuko du ezkontzik izan ez dadin.
— Entzuna dut ezkontzekoa zinela, jarraitu zion Holmesek.. Nola geldieraziko zaitu Irene Adlerrek?
— Eskandinabiako Erregeari argazkia bidaliko dio. Edozein istiluk bildurtzen du eta ezkontza geldieraziko du.
— Eta zergatik Irene Adlerrek ez du nahi Prinzesarekin ezkon zaitezzen?
— Betiko arrazoina da. Nitaz beti maitemindurik dago eta nirekin ezkondu nahi du.
— Ziur zaude argazkia ez duela oraindik bidali?
— Ziur nago.
— Zergatik?
— Nire ezkontzaren eguna egunkarietan ager dadin arte itxaroten ari da. Datorren astelehenean izanen da. Erregeari argazkia bidaliko dio.

— Beste hiru egun ditugu, zion Holmesek. Londresen egonen zara?
— Noski. Langham Hotelan egonen naiz.
— Orduan idatziko dizut. Berri batzuk laister ukanen ditut zuretzako. Orain diruari buruz...
— Zeure prezioa galdetu dezakezu, esan zion Erregeak. Zeozer emango nuke argazki hura lortzeko.
— Dirua beharko dut, erantzun zion Holmesek. Laguntza pixkat beharko dut.
Erregeak haren polsikutik bilete batzuk hartu zuen.
— Hemen duzu, mila libra, uste dut aski izango dela. Holmesek dirua hartu zuen.
— Zer da emakumearen zuzenbidea? galdetu zuen.
— Briony Lodge, Serpentine Hiribidea, St. John's Wood.
Holmesek hartaz ohar bat hartu zuen.
— Beste galdera bat, esan zuen. Argazkia, nolako handia da?
— Nahiko handia da. Gutxi gora behera hogeitahamar zentimetro eta hogei.
— Orduan, gabon zure Goihentasuna. Zuretzako berri batzuk ukanen ditut oso laister. Eta Gabon, Watson, gaineratu zuen Erregeak irten zelarik. Nire ikustera etorriko zara bihar arratsaldeko hiruretan? Zure laguntza nahi nuke.
Urrengo arratsaldeko hiruretan Baker Streetera abiatu nintzen. Holmes ez zen itzuli. Goizeko zortzietan etxetik irten zela aurkitu nuen. Haren zain egoten ari nintzen. Atea iriki zelarik laurak ziren. Sartutako gizona xofer baten gisa jantzita zen. Haren ilea luzea zen eta aurpegia gorri. Holmes zen! Ezer esan gabe bere logelara joan zen. Bost minutu pasatu ondoren irten zen. Aurpegia garbitua zuen eta eguneroko jantziak zeramatzan.
Su ondoan eseri zen. Par egiten ari zen. Orduan, Watson, esan zion. Zer uste duzu egiten ari naizen egun?
— Pentsatzera utz nazazu... Irene Adleren etxea begiratzen ari zinen.
— Halaxe. Goizeko zortziretan irten nintzen, xofer baten gisa jantzita. Laister Briony Lodge aurkitu nuen. Etxe bat da, lorategi batekin haren atzean. Etxearen aurrea kaleraino heltzen da. Etxe alde bateko bide batean eraikuntza batzuk daude. Karrozak eta zaldiak han gordeturik daude. Han, xofer bat aurkitu nuen eta Irene Adler ez denak esan zizkidan.

— Zer esan zizun? galdetu nion.

— Oso ederra dela. Lasai bizi dela eta kontzertotan kantatzen duela. Eguneroko bostetan kotxez ibiltzen dela eta zazpiretan itzultzen dela afaltzera. Gizon bat bakarrik joaten zaiola bihurtatzen. Beltzarana eta ederra dela. Eguneroko etxe hartara joaten dela. Izena Godfrey Norton duela eta legegizon bat dela.

— Oso langilea izan zara.

— Ez da hori dena, jarraitu zuen Holmesek. Godfrey Norton hori oso garrantzitsua da. Legegizon bat da eta eguneroko Irene Adler bisitatzen du. Beharbada haren legegizona da bakarrik, haren adiskidea izan liteke ere. Beharbada hartaz maitemindurik dago. Haren legegizona baldinbada bakarrik, argazkia eman lekioko. Elkar maite ba dute, agian ez du nahi Irene Adlerrek legegizonak argazkia ikus dezan. Egia ba da, argazkia etxean egon liteke. Han egon nintzelarik, zaldigurdi bat Briony Lodgera heldu zen. Gizon bat jautsi zen. Beltzarana zen eta ederra zirudien. Godfrey Norton zen eta ba dirudi arras arina zabilela. Itxaron egon zedilla xoferrari oihukatu zion eta etxe barrura korrika egin zuen.

Ordu erdi bat nonbait han gelditu zen. Egongelako leihotik ikus nezaken. Oso kezkatua zirudien. Emakumea ez nuen ikusi ahal izan. Geroztik Godfrey Norton etxetik irten zen. Zaldigurdiraino korrika egin zuen eta erlojuari begiratu zion: Regent Streetera eraman nazazu. Erraztun bat erosi behar dut. Gero Edgware Bideko Santa Monika Elizara eraman nazazu. Xoferrari oihu egin zion. Libra bat emanen dizut hoge minutu barruan hara heltzen ba zara.

Zaldigurdia joan zen. Geroztik Irene Adleren kotxea etxearen aurrera heldu zen. Irene Adler etxetik irten zen. Kotxearen barruan sartu zen. Santa Monika Elizara, John. Kotxea joan zen.

Haren segitzea erabaki nuen. Kotxe bat kaletik ibiltzen zen eta barrura jauzi nintzen. Elizara heldu nintzen eta arin barruan sartu. Inor ez zegoen Irene Adler, Godfrey Norton eta apaiz bat baizik. Sartu nintzenean begiratu ninduten. Godfrey Norton niregana lasterka ibili zen. Zatoz nirekin, ozenki esan zidan. Lekuko bat behar dugu. Denbora gutti beharko du. Minutu batzu bakarrik. Lekuko bat ez ba dugu, ezkontzea ez da legegarrri izanen. Orduan elizararen aurreraino hartu ninduen. Eta han Irene Adlerren eta Godfrey Nortonen ezkontzeko testigu bat izan nintzen. Laister bukatua zen. Gizonak eskerrak eman zizkidan eta emakumeak libra bat eman zidan. Apaizak irriparre egin zuen.

Hortaz pentsatzen dudanean par egiten dut. Horregatik, oraintxe par egiten ari naiz. Apaizak testigurik gabe ez zituela ezkondu nahi, Sherlock Holmes lekuko baten gisa ukan zuten!

— Beraz ezkondurik daude, nion. Lehia handi batean zirela ematen zuen. Zergatik?

— Nire ustez Irene Adler bildurrarekin dagoela, esan zidan Holmesek. Norbait, bi aldiz, argazkia lapurtzera saiatu zen. Pentsatzen dut Nortonekin ezkondu eta Londres uztea erabaki duela.

— Uste duzu Erregeak kalte egingo liokela?

— Ez dakit, zion Holmesek. Bainan haren bildurra duela ematen du.

— Zer egin zenuen elizatik irten eta gero? galdetu nion.

— Ba, jarraitu zidan Holmesek. Uste nuen Londresetik berehala irtenen zirela. Oso harritua nengoen emakumeak Nortoni zera esan entzunez: Beti, bezala, parkean bostetan kotxez ibiliko naiz. Banan, banan, kotxe batean joan ziren. Orain laister egin behar dut. Lagunduko nauzu, Watson?

— Noski, erantzun nion. Zer nahi duzu egin dezadan?

— Bostak ondoan dira, zion Holmesek. Briony Lodgeren egon behar gara bi ordu barruan. Emakumea zaldigurdiz ibilalditik zazpiretan itzultzen da eta hantxe egon behar dugu haren aurkitzeko.

— Eta orduan zer?

— Gertatuko den gauza batek harrituko zaitu. Bainan lehenbiziko ez duzu ezer egin behar. Argi dago? Lauz-pabost minutu beranduago egongelako leihoa irikita egonen da. Leiho haren ondoan zutik izanen zara.

— Eta beraz?

— Begiratu behar nauzu. Ikusten ahalko nauzu. Nire eskua altxatzen dudanean... holaxe... gelaren barrura zerbait bota dezazun nahi dut. Eta Sua... Sua! oihukatuko duzu.

— Hau da bakarrik? galdetu nion.

— Bai, erantzun zidan Holmesek. Hori botako duzu gelaren barrura. Metalezkoa eta hamabost zentimetro luzea zen. Kezko bonba bat.

— Kezko bonba bat? oihukatu nion. Arriskugarria da?

— Ez, ez, batere, errepikatu zidan Holmesek, irriparrerez. Ke asko eginen du eta kito. Bota egin eta Sua! esanda kale burura joan zaitetz eta nire zain egon.

Holmes bere egongelara joan zen. Handik ateratzean apaizaren antzera jantzita zegoen. Seirak eta laurden ziren Baker Streetetik joan ginenean. Zazpirak hamar guttiagotan Serpentine hiribidera heldu ginen. Illuna jausten ari zen

Briony Lodgen aldean zain ginelarik. Jende ainitz han ikus-
tean harriturik nintzen. Gizon batzuk etxearen ondoan zeu-
den. Bi soldado neska bati mintzatzen ari zitzaizkion. Eta
beste gizon batzu kale izkinan.

Zazpiretan, Irene Adleren karroza hiribidetik agertu
zen. Briony Lodgen ateraino gidaturik. Gelditu izaten ari
zelarik, gizon bat aurrera hurbildu zen. Karrozako atea iri-
kitzera etorri zen. Soldaduren bat berehalaxe heldu zen eta
karrozatik gizona kanpora bultzatu zuen. Borroka bat hasi
zen. Bigarren soldadoa eta beste gizonak hara juntatu ziren.
Orain, Irene Adler, burrukatzen ziren gizonen jendetzaren
erdian, zegoen. Holmes jendetzaren barrura laster sartu zen
neskaren laguntzera. Neska kausitu zuenean orro bat botatu
zuen eta lurrera erori zen. Odola zerion aurpegitik. Holmes
erori zelarik borroka gelditu zen. Borrokan zeuden gizonak
kalearen behera korrika joan ziren. Kale izkinan zegoen gi-
zona Holmesen laguntzera heldu zen.

- *Nola dago?* oihukatu zuen Irene Adlerrek.
- *Hil da*, zion norbaitek.
- *Ez, ez da hila*, errepikatu zion beste norbaitek.

Bainan hiltzen ari da.

- *Beldurgabeko gizon bat da*, esan zion soldaduei
mintzatzen zitzaien neskak. *Emakume horren poltsa ia la-
purtu egin zuten. Geldierazi zituen. Ay! arnasa egiten ari
da. Bainan kalean ezin da etzanik utzi!* Irene Adleri begiratu
zion neskak. *Etxearen barrura ekar dezakegu?*

- *Noski*, ihardetsi zion. *Egongelara ekar ezazu. Bide
hortarik, otoi.*

Emeki, emeki apaiz zaharra Briony Lodgera ekarri
zuten. Leihora joan nintzen. Holmes ikus nezaken. Aulki
batean etzanik zegoen. Haren aginduez oroitu nintzen eta
nire poltsikotik kezko bonba ateratu nuen. Holmes eseria
zegoen eta leihora erakusten zuen. Emakumea leihora lehia-
tu zen eta iriki zuen. Holmesek eskua altxatu zuen. Kezko
bonba gelara bota eta *Sua!* oihukatu zuen. Berehalaxe *Sua!*
oihukatu zuen jendetzak. Orduan kaleko izkinara heldu nin-
tzen. Hamar minutu pasatu ondoren Holmes etorri zen. Ba-
ker Streeterantz abiatzen hasi ginen.

- *Oso ondo egin duzu, Watson*, zion. *Ondorioa, on
ona zen benetan.*

- *Argazkia dadukazu?*
- *Ba dakit non dagoen.*
- *Eta nola aurkitu duzu?*
- *Erakutsi zidan.*
- *Otoi, argi nazazu, Holmes.*
- *Nahiko erreza zen*, barre egin zuen. *Jende hori
pagatu nuen lagun diezadan.*

- *Horrela pentsatu nuen.*

- *Borroka hasi zenean, aurrera laster joan nintzen eta
lurrera erori nintzen. Pintura gorri pixkat nuen eskuan. Es-
kua aurpegian ezarri nuen. Pintura gorri odola bezalakoa zen.*

- *Noski.*

- *Beraz etxearen barrura eraman ninduten. Sartzera
utzi behar ninduen. Zer besterik egin zezaken? Eta haren
egongelara. Ba nekien argazkia han egon behar zela edo ha-
ren logelan. Aulki batean ezarri ninduten. Leihoa erakutsi
nizun eta zure aldi ona eduki zenuen.*

- *Nola lagundu zintuen?*

- *Oso garrantzitsua zen. Zer egiten du emakume
batek su bat gertatzen ba da? Laster johan da haren gauza
baliosgarrienak salbatzeko. Emakume ezkondu batek haren
umea salbatzen du, eta ez bada ezkondua, bere edergailuak.
Orduan zer zen gauza garrantzitsuena gure emakumearen-
tzat? Argazkia, noski. Su bat zegoela pentsatu zuen, beraz
berehala joan zen salbatzeko. Irudi baten atzean gordea ze-
goen eta hara zuzen joan zen. Ateratu zuelarik ikusi nuen.
Orduan surik ez zegoelarik oihukatu nuen eta berriro argaz-
kia gorde zuen. Momentu honetatik neska ez nuen ikusi.
Argazkia hartzera joan nintzen bainan haren xoferra etorri
zen. Segurago zen beranduago arte itxaro nezan.*

- *Eta orain zer?* galdetu nion.

- *Bihar emakumea bisitatuko dugu. Erregeari, gure-
kin etortzea, galdegingo diot. Egongelara sartuko gara eta
haren zain egonen. Bainan etortzen denean ez gara han ego-
nen. Erregeak berak argazkia har dezake.*

- *Eta zer ordutan joanen zara?*

- *Goizeko zortziretan. Ohean oraindik egonen da.
Erreza izanen da argazkia hartzea. Mezu bat oraintxe erre-
geari bidali behar diot.*

Une honetan, Baker Streetera helduak ginen. Atean
gelditu ginen. Pasatu zen norbaitek zera esan zuen:

- *Gabon Sherlock Holmes Jauna.*

Momentu honetan jende ainitz zegoen kalean. Min-
tzaku zen pertsonak gaztea iduri zuen. Laster pasatu gintuen.

- *Ahoēs hori jadanik entzuna dut*, esan zidan Hol-
mesek. *Orain nor zen ari naiz.*

Gau hartan Baker Streeteren lo egin nuen. Gosaltzen
ari ginelarik Bohemiako Erregea gelan bat batean sartu zen.

- *Argazkia ba duzu benetan?* galdetu zuen.

- *Oraindik ez*, ihardetsi zion Holmesek.

- *Bainan uste duzu lortuko duzula?*

- *Uste dut baietz.*

- *Orduan ba goaz*, erantzun zion Erregeak. *Orain-
txe joan gaitzen. Nire karroza atean dago.*

Minutu batzuk beranduago Briony Lodgera abiatu ginen.

— Irene Adler ezkondua da, aipatu zion Holmesek.
— Ezkondua! noiz? galdetu zion Erregeak.
— Atzo.
— Bainan norekin?
— Norton deitutako legegizon batekin.
— Bainan ez du maite!
— Maite duela itxarotzen dut.
— Zergatik?
— Zure ezkontza salbu izanen delako. Neskak Norton maite baldin ba du ez zaitu maite. Maite ez ba zaitu, ez da zure ezkontzaren geldieraztera saiatuko.

— Egia da hori, baieztatu zion Erregeak.
Briony Lodgen atea irikita zegoen. Emakume zahar bat zutik zen eskaileran.

— Sherlock Holmes Jauna? galdetu zuen.
— Sherlock Holmes, ni naiz, erantzun zion nire adiskideak.
— Norton andreak etorriko zinela esan dit. Gaur goizean senarrarekin joan da. Frantziara abiatu dira.
— Herria utzi du?
— Eta ez da berriro itzuliko.
— Eta argazkia? galdetu zion Erregeak, ozenki. Era-man du?

— Ikusiko dugu, errepikatu zion Holmesek. Emakume zaharra aurrean bultzatuz sartu zen eta laster joan egongelara. Erregeak eta nik segitu genuen. Holmes ate ondoko irudi batera joan zen eta itzuli zuen. Argazki bat eta gutun bat, loturik, atzean zegoen. Gaueko soinekoz jantzita Irene Adlerren argazkia zen. Gutuneko hitzak ziren: (Sherlock Holmes Jaunari).

Nire lagunak gutuna urratuz iriki zuen eta elkarrekin denok irakurri genuen. Zera esan zuen:

Holmes jauna,

Oso argia izan zara. Argazkia non zegoen aurkitu egin duzu. Ez nekien kezko bomba ikusi arte baizik. Norbaitek esan zidan Erregeak zure laguntza eskatuko zizuela. Baita zure zuzenbidea ere eman zidaten. Bainan ez nekien apaiz zaharra zeu zinela, benetan, Holmes Jauna. Egongelatik irten nintzenean neure xoferra bidali nuen zure begiratzera. Eta gero gizonezko jantziak eman nituen. Irten zinezlarik, Baker Streeteraino segitu zintudan. Zeu egiazki zinela jakin behar nuen. Gau on opatu zizun gaztea neu nintzen. Eta orduan neure senarraren aurkitzera joan nintzen.

Hobeto izango zela Ingalterra berehalaxe uztea erabaki genuen. Ez zaitugu borrokatu nahi. Ba dakigu zuk irabaziko zenuela azkenean. Erregeak argazkiak ez du bildurrik izan behar. Ez dut ezer eginen haren ezkontza geldierazteko. Hura baino gizon hobea maite dut. Erregea krudela izan zen nirekin. Haretaz bildurturik nago, beraz argazkia gordetuko dut. Ukanen dudan bitartean ez da nire aurka ezer egitera ausartuko. Gorde nahi ahal duen beste argazki bat uzten dut. Goraintziak.

— Zer emakumea! oh! zer emakumea! oihuka egin zuen Bohemiako Erregeak. Erregia on bat izango ziteken. Bainan hainbeste ezberdintasun dago guren artean.

— Bai ba dirudi diferentzia handia dagoela zuen artean, zion Holmesek murrizki. Damutzen naiz argazkia lortu dizudalako.

— Holmes jaun maitea, zion Erregeak, hori ez da garrantzitsua. Agintza egin dit. Beti haren promesak gordetzen ditu. Nire ezkontza salbaturik dago.

— Pozik nago hori entzuteaz, zure Gohientasuna, ihardetsi zion Holmesek.

— Eskerrak nola emango dizkizut, Holmes jauna? Erraztun hori hartuko duzu? Baliotsun handia du.

— Niretzat balio handiagoa duen gauza bat dagozu, zure Gohientasuna, jarraitu zion Holmesek.

— Otoi agindu.

Holmesek gaueko soineko batean jantzitakoa zen Irene Adlerren argazkia erakutsi zion.

— Argazki hau, esan zuen.

Erregeak izigarri harrtua zirudien.

— Irenen argazkia! Ziturki nai ba duzu!

— Eskerrik asko, zure Gohientasuna. Ez dago ezer besterik egiteko. Egun on on bat opatzen dizut. Holmes joan zen. Beharbada Erregeak eskainitako eskua ez zuen ikusi. Baker Streetera itzuli nintzen Holmesekin.

Eta hala nola eskandalu handi batetarik Bohemiako Erregea salbatu zen. Eta hala nola emakume batek Sherlock Holmes garraitu zuen.

Hazparne eta Urkoiko artean bide urratzen
ari diren horieri.

URRAKOA

Neguko beltzean, ate hetsietan
Oi egun luzeak, igande aratsak...
Ba ziren euriak, arbola beltz basak,
Paotako bidean, lehen ametsetan.

Han lokaturikan, altzoko etxeetan,
Usainak, ferdeak, ziren ene hatsak,
Sasiko kafiak jauregi hertsiak,
Denak itzulikan, mendi sahetsetan.

Joan zen ba enekin lehen iturria,
Zuzendu dautate aments bihurria,
Ikatxurieta eta Zenpoldea...

Malingoteari, Alaattooniari,
Sakiak Paotari, berdin Xaxpiiniari.
Nolaz da pasatu herio goldea?



Titulu bitxi bat diat hor, bainan ago. Erran nahi deat lehenik aldi huntako gaiaren iturria: nola mundu guzian xerriak mespretxatuak diren...

To! Harrak Xabier Amuriza: "bota dezagun demokrazia zeri askara!" Zerrien aska: ifernuaren pareko leku okaztagarria. Mutiko hortaz ba diat estimu haundia, bainan demokrazia zeri askara botatzeaz mehatxakatzen duelarik ximiko zahar bat bihotzean pizten zaitak. Eta ba duk besterik! Axular zaharra bera, Euskal Herriko apez predikarien aita paregabezko hortarik hasiz, mende honen ondarrera dituzkan iraultza esperantzetaraino, xerrietaz trufa ba duk. Esplikatu behar deat hori. O, ba, trufa horien herrak ez duela bali handirik aitortzen diat eta gogoan diat Esteribarreko erran zahar hau, "norata ezkurra, harata txerrien muturra"... horrekira mentura bainintaikek xerrietan ba ginuela etsenplu hartzeko! Erranen deat hala ere zerbeit gogoetagarri ba dela hor, xerrien izaitea hainbestetaraino zangopilatzen duen egoera orokor hortan. Eta zer! Batere ahalgerik gabe aitortuko deat: xerrien amodio haundi bat ba diat!

Badakik, beste ainitzek bezala, ene haurtasunak xerrien auzotasuna ukan duela. Adin bat dugun guziek, eta ez bakarrik laborari etxeetan, xerrien kurrinka goxoa entzuna diaguk... hunen zorionaren deiadarra bazka askara ixurtzean...

Gero, beste gauza batek jo ditik gure haurtasuneko neguetako goiz hotz horietarik, oraiko neguek ez duten hotz berezi hori. Xerriaren orro luzea, batzuetan bizpahiru astez, kasik goiz guziez xerria nunbait hiltzen zitean, Miatik Arramintxeneraino eta A-laatonetik Urgaixtoraino. Haurrak ez gintuan alabaina goizik jeikitzen, baina etxeakoaren hiltzea zelarik gehienetan hor gintuan. Gehienetan ere poxolatzen ginian ba, bainan beti zerbeit egiten ginian momentu hortan, xerriaren buztanaren atxikitzea bederen.

Xerria hiltzen zutela baginakien bainan hiltzeaz ez gintuan ohartzen, beste egun bat zuan besterik ez. Ohartzen gintuan haatik, besteen etxeetan zelarik, orro luze bat zela. Ez ginakian zendako hoin luzea botatzen zian. Mendi, patar eta erreken oiharzuna lauizatzen zuten oihi luzea, ohearen barne bero goxotik beldur ikaraño batekin entzuten ginian.

Ainitz urte eman ditiat gauza bati ohartzeko: mina —eta pena eta dolore hain segur— mina zuelakoan, beraz, xerriak zuela orro luze hori egiten. Nik uste nian pesta ginuelakoan etxen zela holako oihi luzea egin arazten... besteri jakin arazteko! Gero, badakik nola ohartzen haizen denek beren iturburua duten... nik ere, besteek bezala, ikasi nian zergatik hola hil arazten zuten. Zinturreko zain bat moztu eta, emeki emeki flakatzen duk eta, anartean, bihotzak jo egiten baitio aski indarrekin, odola kurri arazten zioke zainetan eta beraz odol husteran laguntzen dik. Odol hori bildu behar baitie, molde erretxena duk hola egitea eta nagok beste molderik baditena



Après un sourire à ses amis,
le cochon s'enfuit à tire-d'aile
jusqu'au profond de la forêt.

L. ETXEZAHARRETA.
1983.eko udaren azken egunetan.

ken odol guzia biltzeko. Hau beharrezkoa die delako odolki horien egiteko. "Tripotak" erraiten die leku zombaitetan hemen, erranen deat hitz hori ez duta maite, itsusi zautak. Karkulan ari bainuk hau ixkiriatzeko denboran ari nuk pentsatzen hea xerriaren azpi eta artekiak berdin kontserba ditaizken xerria odol hustu gabe. Kasik segur nuk ezetz; ikusi ditiat azpiak andeatzen, harrek hasiak eta preseski odol zerbait ginariaren barnean egona baitzen. Nik bezala ikusia huke hori, gazitzeko denboran, nola thorra eta thorra ari izan behar den, gelditzen diren odol-gune horien parti arazteko. Mazaja batzu balire bezala, hezurren plegadura guzietan artzen —eta zer indarrean— ikusi ditiat.

Xerriaren orro luze horren erran nahira ez nuk segidan jin. Erran behar deat gogoan dutan gauza bat. Hirietako lagun batekin ari izan ninduan behin orro hortaz. Hunek erraiten zaitaia nola Eguberrietako bakantza horietan deurrriak ikusten zituela ezin hori soportatuz. Eta nik erraiten nioian ez niela konprenitzen zendako hola zen eta etzuela segur erraiten zuen bezenbat irauten orro horrek. Uste diat biak ez ginela kantitu: harek, bederen hamar minuta irauten zuela eta nik bizpahiru bakarrik... Pentsatzen diat, orai, ene haur denborako pesta hori ez niola zikin-tzera utzi nahi.

Bitxi zaitak hala ere nola xerriaren hiltze horrek ez zaitaia batere hiltzeari pentsa arazten...



Ba! Xerriak maite ditiat best batzuek gatuak maite dituzten bezala. Eta ez erran neri xerritei zikin horietan preso, kaka eta iztilaz orraturik ikusten dituzkan gaixo abere horiek direla ene maitasunaren gai zuzenkontrazkoak! Ikusi dituzka behin ere udako aratsalde leun horietarik batean, mendi mazela zenbaiteko haitz baten itzalean, bizpahiru xerri goxoki eta polliki, elgarri kuntre lo kuluxka baten egiten? Ez diat Watteau aipatuko eta ez nikek lirismo bukoliko batetara lerratu nahi, baina ez nuk batere beldur hor errateko ene biziko momentu hunkigarrienerarik batzu ukan dituztala. Haizearen freskura firrindan, kurrinka goxo horiek, elgarren artean zuten amultsutasan sendikorra, beren larru garbia arrosaren kolore guziekin... Behar bada sinetsiko duk hor egon ninduala luzaz eta hor lanbro sensual bat bezala sendi zitekela, larruaren biluztasunak minbe-

raturik. Hurbildu ninduan. Badakik hain segur zer entzumen fina duten kabala horiek eta berriz ere ene arraza gizatiarreko partaideen basakeriaren errefera hartu nian: bizpahiru metretara orduko xutitu zituan beharria erne, etsai bat banintz bezala! Xirmi xarma harritan sar barna...

Halako zeit zatak beti trufan ari zaizkidan horieri arrazoinka artzera bortxatua izaita. Hala nola balio dua berriz ere erakustea xerria abere garbi bat dela? Antaa zikinkerian sinbolotzat zaukaie hainitzek (...urde zikina!). Zoazte, zuek, beraz, andere eta jaun garbitzaleak edozoin izenda nezaken horietarik baten etxera, Jendetasunez hanpatua den horietarik batenera. Eta egin karkulak hea Jendetasun edo Zerritasun bi hitzetarik zoin ditekene egokiena!

Elkorrari zerbeiten entzun araztea ez duk ene indarren heineko ahala, baina erran gogo diat holaxet —bakter hitz batez— norbeit preso sartzen bada edo gela batean egon arazten sekulan atera gabe, haren egoitza laster delako "xerritei" horien idurikoa bilakatuko dela. Zeren eta —pentsemak— hire behar guziak gela batean egin behar balin badituk, sekulan ez balin badautaie garbitzen hire barne hori... nolaz ez haiz, hi ere, laster zikinkerian orratuko? Hire aztal sorbaldak laster zakar zikin lodi batek estaliko dik eta hotzak eta umitateak, aipatu gabe lotsa eta bakartasuna, hire garbitasunerako gogoia laster suntsituko die. Gogoia dituzka nola ziren dela konzentrazioneko kanpo horietara heltzen ziren deportatuen treinak? eta gero beren blokak? Jendea aberearen heinera, aberea jende batzuen heinera bezala, laster jausten zela orduko lekuko guziek erranen dautaie. Ez duk hor irri egitekorik: ungarria guk ere egiten ahal diaguk gaixo xerri batzuen pare!!

Libro eta kanpoan putinkaka ibilki, xerriak, beren larru garbiarekin, irri bat mutur ezkingean, beren buztan labur kuskulduna ikurriña bat bezala... Omen guk, giza eta emazte arrazakoe, gu "sapiens" horiek, zorionaren asmatzeko ahalak abereetarik egiten gaitik diferent! Ba, tirrit! Baginu amultsutasun pixka bat, laster zoriona aberreetan ikus ginezakek. To, hor nagok hea espresuki xerrietaz ari naitzen. Ez, ez, hemen aitor eta goraipe nezakek abere guzientzat zoriona baditekela.


To, hor beste zerbeit gogora heldu zaitak. Apezek ere, eta ez bakarrik gure katoliko erromano horiek, xerrien kontra beren balentriak obratu dituztela. Horiek alabainan beren arrazoinamenduak seriosateko, bistan duk, Jainkoa, bekatua eta hail, berdin teologia bera hortan sakatzen die. Gure "Doctor Teologo" Axular zaharra bera aipatu behar diat. Hunek, artikulu batean, hau abilezia, xerriak trufatzen ditik molde desohoragarri batean. Erraiten dik, gogoan balin ba diat segurik ahal bezain xuxen, nola bekatoros bat xerri bati konpara diteken! Ba, ontsa irakurtzen nuk, bekatorosa eta xerriaren ibilmoldeak parekatzen ditik!!! Behazak: erraiten dik bekatorosa hiltzearen beldur izanez, hiltze horren beldur den hil baino aise lehenago eta beraz bere bekatuen gatik besteak baino gehiago sofritzen duen. Bo, eman dezagun. Bainan gero erraiten duenarekin ez nuk batere ados; erraiten dik xerriari konpara daitekela, zeren eta **hunkitu baino lehen kurrinkan hasten baita hau!** Behazak gure teologoaren abileziari. Pentsemak: alde batetik gezur hutsa dik hor: ez duk sekulan ikusiko xerri bat kurrinkan ari hari hurbiltzearekin. Hitaz urrunduko duk, besterik ez. Zer us-te zian ala apez kurkuil harek? A ba, behar bada ikusten diat hor zer erran nahi zian: xerria bere hiltzeko taularen gainean, sorbaldetik, zangoetarik, estekan atxikitzen dutelarik, ikusten duelarik xerri hiltzailea bere ganit marraza handia eskuan, nigar batzu ixurtzen ditik... Krako bat ere sartzen ziotek gehienetan bere agoniaren ohaska horren gainera tiratzeko. Eta behar likek ixil ixila egon! Nolaz haren begiek ez die botako zeru mutuaren azkorriari azken ximixta bat, eta nola bizi dela eta nahi duela bizi oraino bere zintzurak ez dik oihi eginen, haren beharriek baieztu dezaten bizi agergailu hori? Segurraz ere Axular abilak pentsatzen ditek ez ditekela haren apez izpirituan baizik sofrikarioa soleitu... Behar likek xerriak bere hiltzaileen legeari irriño bat egin?

Ago! Beste apezik ba duk oraino... "Haluf" deitzen die xerria arabeek. Beren sinestearen arabera ez die huntarik jan behar. Hortan ez diat ikusten bekatuak. Bainan ba duk besterik: jakizak "haluf" norbaiti erraiten balin bada ez dela konplimendu bat! Abere pollit horren aipatzea bera okaztagarri zaiotek. Hor ere seguraz ere zibilizazione handi baten sortzaileen marka.

Nicaraguako sandinisten Iraultzarentzat ba diat errespetu. Muchacho horiek zerbaiz jazarazirik ba die munduko zaharkerietarik. Behar bada irri eginen duk bainan horra: bizia, eta haurrarena bereziki, herri hortan gauza premiatsua duk eta hunen zaintzeko "osagarri brigada" batzu muntatuak ditie herri guzietan. Kanpafia batzu hasiak ditie, garbitasuna, jateko molde hobekoak edo xertatzeak aipatzeko. Propaganda puska bat egiteko marrazki batzu egiten ditie: holako batean ikusi dutanak punpako bat egin arazi zaitak. Xerriak eritasun eta zikinkeria guzien ekartzaila presentatzen ziztean... Ez ditiat kondena-tu nahi ez nuk CIA eta "contras" horien ildoetara jautsiko bainan, hala ere, aitortuko diat min egin dautala horrek. "Sus cochinas vidas" horien gatik direla xerriak lanjeros leitu diat. Berriz ere erran behar diat: miserian eta zikinkerian bizi arazten ditie xerriak... eta gero zikinak direla salatzen! Gogoeta labur holakoek iraultzaren luzetasunaz dudak sor arazten ditie ene baitan.





Azken hitz bat. Lehenagoko irakasle lagun bategen ekarri zataian potreta bat. Hori zuan Amikuzeko etxalde baten aintzinean, korralean, lohiaren erdian hartua. Hil harri zahar bat, hautsia, han zuan, xerri tropa baten erdian. Ba dakik zer izen eman nahi zian foto horri? **Margarita inter porcos!** Lili bat xerrien erdian... Alabainan hau zian zikinkeria zikinkeria: gizonen betiererako deiadar ondar ederra xerriek inguraturik...


Ez diat segituko. Hainbeste herraren erdian, heien edertasuna eta maitasuna konpreniturik, bizia piska bat hobeki ezagut arazi dautatela aitortzen diat. **Margarita inter porcos!**








Egun batez...




Larrun ondoan...
Leize bat...














TERRIA
ZIBEH.





handik jautri da ⑦
~~Handik jautri da~~ mo

BAIONAN

Jakin: 8 avenue Foch
 La rue en pente: 29 rue Poissonnerie
 Musèe basque: 1, Marengo karrikan
 Zabal: 52, Pannecau karrikan

BILBON

Galeria del libro: Ercilla, 35
 Herriak: Lizenzado Poza, 11
 Kirikiño: Colon de Larreategi, 11
 Unibersitas: Alameda de Mazarredo, 6
 Verdes: calle Correo

DONAPALEUN

Amikuze liburutegia
 Barthaburu liburutegia

DONIBANE GARAZIN

Maison de la Presse

DONIBANE LOHITZUNEN

Rouan liburutegia: Gambetta karrikan

DONOSTIAN

Bilintx: Fermin Calbeton, 30
 Kabo: Plaza Gipuzkoa, 13
 Manterola: Manterola, 8

GAZTEIZEN

Herrikoia: Cuchilleria, 76

HAZPARNEN

Carrère Pantxoa: rue de l'Ursuya

HENDAIAN

Derro liburutegia: 18 rue du Port

IRUINEAN

Abarzuza: Nueva, 81 (Pza S. Francisco)
 Auzolan: San Gregorio, 3
 Centro Arturo Campion: calle Comedias, 14

MAULEN

Belatxa liburutegia: 44, Victor Hugo karrikan

MIARRITZEN

Eki: 21 av. de Verdun

PARISEN

Euskal etxea: 10 rue Duban 16é

maiatz.

15, Pontrique karrikan — 64100 Baiona

Tél.: (59) 59.86.33 — Banco de Bilbao — 20007014004

Abonatzeko: urte batentzat (4 zenbaki): 70 F. edo 1300 Pts.
 sostengu gisa: 100 F. edo 1800 Pts.

HEGOALDETIK ABONATZEKO

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-
 rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki huntara: 20007014004.

itzul iezaguzu

Deitura:
 Izena:
 Hebidea:

 Posta zenbakia:
 Hiria:
 Herria:

Honako xehetasunak eman ditzazkezu, nahi baduzu:

Adina: Lanbidea:
 Telefono zenbakia:

•
 Edité par l'association MAIATZ
 Responsable de publication: Maya BOVARD
 Dépôt légal: 1er trimestre 1983
 N° de C.P.P.A.P.: 64750
 Imprimerie IMPRIMINUTE à Bayonne
 Imprimerie MUGALDE à Hendaye
 •

Maiatz.

15 Pontrique karrikar
64100 palona. depôte
ga' depublication 3^e
fimestre 1983. n^o de

CPPAP: 64750. edité par l'association maiatz.
m.j.c. de palichon. responsable de publication
maya bovaré. imprimeries mugatde / henday
éet impriminté / bayonne. 83. ko abendoa.
hiruhila telekaria : 20 frs edo 350 Ptas. urte
oso ko harpidetza : 70 frs edo 1300 Ptas. pag.
code postal 200070 14004.